



Nelson Mandela
1918-2013

Borrokalaria askea



- **Gemma Sangines** «Autoestimu falta handia dago hizkuntza gutxituetako hiztunen artean»
- **Koteto Ezkurra** «Gustura hartuko genuke izar bat, erremonteari haizea emateko»
- **Maite Larburu** «Antzinako musikaren soinu ideala gustatzen zait: sinpletasuna, hauskortasuna»
- **Mixel Bidegain** «Deszentralizazioaren ekimena gezur hutsa da»
- **Net Hurbil** AEB eta Europa ituna prestatzen ari dira merkatua gehiago liberalizatzeko



Jar iezaiezu aurpegia Elhuyar anaiei



Juan Jose Elhuyar

Fausto Elhuyar

Duela 230 urte, Bergarako Mintegian wolframa isolatzea lortu zutela jakitera eman zuten **Elhuyar anaiek**. Elementu bat gehiago taula periodikorako, ospea euskal zientzialarientzat.

Sormena. Elkarlana. Dibulgazioa.

elhuyarkide izan

Euskara zientzian, teknologian eta gizartean sendotzen eta harentzako arlo berriak eraikitzen egiten dugu lan, euskal komunitate aktiboa eta kritikoa helburu.

***Horretarako, zure laguntza behar dugu.
Egin gure bazkide, izan Elhuyar!***

www.elhuyar.org/bazkidetza

Zuk ere Elhuyar izan nahi duzu?

65
€/urtean



Deskontuak eta
abantailak produktuetan.
Proiektuetan parte
hartzeko aukera

elhuyar



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginaz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknika: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



gizarte
kutxa
zugandik zuzana



NON ZER

2013ko abenduaren 15a, 2.395. zenbakia

ASTEKO GAIA

NELSON MANDELA Sinbolo hilezkorra.
LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 4

PERTSONAIA

GEMMA SANGINÉS SAIZ: «Hiztunek erdarara jotzeko arrazoi garrantzitsuenak euskararen getizazioa da». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

KOTETO EZKURRA: «Adinari ez diot kasu handirik egiten, sentsazioei baizik». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Lurra denona izan dadin.
LIDE HERNANDO / 19

IRITZIAREN LEIHOA

ETA-REN AURKA HOBETO BIZI OTE GINEN BADA?

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 20

ENPATIA BILA, GEURE BURUEN ALDE DABID ANAUT / 22

PLAZARA, ZERTARA? IMANOL MINER / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 21

TXANDAN Gure sor lekua. AMETS ARZALLUS / 22

BERTSO BERRIAK IXA taldeari. AITOR SARRIEGI / 23

ERDIKO KAIERA

MAITE LARBURU: «Hitzik gabeko unibertso ikusezin hori da agian musikari nomadaren aberria». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 24

ORTZADAR KULTUR ZIKLOA Nafarroa 1512: herri xumearen sufrimendua dantzan. AINHOA MARIEZKURRENA / 28

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 30

MUSIKA OLATZ KORTA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Negarra eta barrea saio berean. MYRIAM GARZIA / 33

IHESI ZUIA (ARABA) Harriak hitz egiten hasiko balira moduan...
AMAIA UGALDE BEGOÑA / 34

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

MIXEL BIDEGAIN: «Baionan auzapeza hautatzeko abertzaleak giltzarri izanen dira». MIKEL ASURMENDI / 39

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA Txapelketa aitzakia euskal kulturara hurbiltzeko. EIDER MADINA BERASATEGI / 42

ERRUGBIA Talde bakarra Ipar Euskal Herrian?
JON TORNER ZABALA / 44

GIZARTE BAZTERKETA 114.000 lagun gehiago pobrezian.
EIDER MADINA BERASATEGI / 45

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL AEB eta Europako lobbyak labekatzan ari diren
TAFTA. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Sinbolo hilezkorra

Nelson Rolihlahla Mandela hegoafrikarraren heriotzak bost kontinenteetako herritarren arreta bereganatu du. Apartheidaren aurka borrokatzeagatik 27 urte kartzelan egin ostean, herrialdeko lehen presidente beltz eta demokratikoa izatera heldu zen. XX. mendeko ikono nagusietakoa, bere izena erresistentzia, duintasuna eta berradiskidetasunarekin lotzen da.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |



Nelson Mandela 1994an, Hegoafrikako presidente hautatu ostean, dantzan.

“Benetako liderra hitzaren zentzu guztietan, mendean behin jaiotzen den pertsona horietako bat. Herri bat gidatzeko behar diren ezaugarri guztiak ditu eta bere lidergoa instintiboki jarraitzea erabakitzen duzu”. Brian Currin abokatuaren hitzak dira, artean Mandela bizirik zela ARGIAri esanak. XX. mendeko preso politikorik ezagunenetakoa 95 urterekin hil da, etxean. Abenduaren 5ean, biriketako infekzio batek eraginda joan zen, “bakean”, Jacob Zuma presidenteak azaldu duenez. Mundu osoko estatuburuak erakarri dituen hilaren 15eko estatu-hiletaren ostean,

Qunu jaioterrian lurperatuko dute, berak hala eskatuta.

Mandela 1918an jaio zenean, gurasoek Rolihlahla izena jarri zioten eta xhosa hizkuntzan “arazo sortzaile” edo bihurri esan nahi du. Nelson izena eskolan jarri zion maistra batek, Britainia inperialeko heroiei baten omenez. Kontzientzia politikoa pixkana hartzen joan zen, *Long walk to Freedom* autobiografian azaltzen duen moduan.

Aurrez lotutako ezkontza batetik ihesi joan zen Johannesburgora. Bertan pixkana “haserre, errebelia eta nire jendea kartzelan

sartzen zuen sistemaren aurka borrokatzeko gogoaren kontzientzia” hartzen joan zen. Gutxiengo zuriak agintzen zuen Hegoafrikan eta herritarren %14a lurren %87aren jabe zen. Beltzak, indiarak eta mestizoak piramide politikoaren behealdean zeuden, bozkatzeko eskubiderik gabe, zanpatuta eta mugitzeko ere askatasunik gabe.

Ekintzaile politikoa

Gauzak hala, berak kontatuta utzi zuenez, Mandela iraultzaile bilakatu zen 1942an. 24 urterekin ANC alderdian sartu zen, eta gazteen adarra sortu zuen hainbat lagunekin batera. Alderdia posizio erradikalagoetara eramane zuten. Bidegabe jotzen zituzten legeen aurka, desobedientzia zibila praktikan jartzen zuten, boikotak eta ekintza masiboak sustatuz. Hainbatetan atxilotu zuten. Ikasle txiroa izan arren, zuzenbidea ikasi eta bulegoa ireki zuen, lagun batekin. Arraza beltzeko kideek herrialdean ireki zuten lehen abokatu bulegoa izan zen, eta prezio merkeetan bestela defentsarik izango ez zuten herritarrek hartzen zituzten.

Egoera politikoa asko gaiztotu zen 1948an, Afrikaner nazionalistek (kolono holandarren ondorengo herritarrek) programa arrazista batekin zuriak bakarrik parte har dezaketelako hauteskundeak irabazi zituztenean. Giroa gero eta nahasiagoa zen, eta protestak gero eta ohikoagoak. Poliziak 69 zibil hil zituen Sharpeville herrian 1960ko martxoan, Apartheid legeen aurka protestan ari zirene manifestazioan. Larrialdi egoera ezarri zuten herrialdean, 18.000 atxilotu eta ANC alderdiaren ilegalizazioa ekarri zuen horrek.

Gerora hainbatek alde batera utzi nahi izan duten kontua den arren, Mandelak borroka armatua antolatu eta defendatu zuen urteetan zehar. ANCREn talde armatuaren lehen buruzagia izan zen, gobernu arrazistaren aurka egiteko beste biderik ez zegoela sinetsita. 1960. urtea zen. “Sekula soldadu izan gabea nintzen honi, sekula bataila batean parte hartu gabea, sekula etsaiaren aurka pistola batez tiro egin gabea nintzen honi, armada bat sortzeko ardura eman zioten. Erakundeari *Umkhonto we Sizwe* (Nazio baten lantza) izena jarri genion, MK laburtuta”.

Europar eta Afrikan finantziarioak lortzeko bira egin ostean, 1961ean atxilotu zuten. Fidel Castroren *Historiak absolutuko* nau izenez ezaguna den autodefentsan inspiratuta, epailetan bere burua defendatu zuen, eta Apartheid sistema goitik behera kritikatu zuen. Heriotzarekin zigortu zezaketela jakin arren, honela amaitu zuen saioa: “Nire bizi-

tzan afrikanen borrokari lotua aritu naiz. Zurien dominazioaren aurka borrokatu dut, beltzen dominazioaren aurka borrokatu dudane bezala. Jendarte libre eta demokratikoaren ideala maitatu dut. Pertsona guztiak elkarrekin harmonia onean eta aukera berdintasunean bizitzea nahi nuke. Ideal horren alde biziko naiz, eta noizbait erdiestea espero dut. Baina, aldi berean, egoerak hala eskatzen badu, ideal horren alde hiltzeko prest naiz”.

Egun Mandela heroizatzen duten herrialde askok babes osoa ematen zioten gutxi batzuen botere interesak babesten zituen

Mandelaren lidergo sendoa aitortzen dute eragile guztiek, baina itzalean jende asko aritu zen lanean

Hegoafrika arrazista hari. AEBek, Frantziak eta Britainia Handiak, negozio interesak tarteko, Hegoafrikaren aurkako mozioei betoa jarri zieten Nazio Batuen Erakundearen. Egun sare sozialetan bolo-bolo aritu dira David Camerone kritika eginez, izan ere garai hartan

“urkatu Nelson Mandela eta ANCKo terroristak guztiak” afixak atera zituen alderdi konterbadoreak.

1962an atxilotu zuten 44 urterekin eta bizi osoko espetxe zigorra ezarri zioten. Mandelak 27 urte egin zituen kartzelan. AEBek 2008ra arte ez zuten ANC alderdia talde terroristen zerrendatik kendu, Mandelak presidente kargua utzi eta bederatzi urte igaro arte.

Nor da Mandela? galderari honela erantzun zidan Mac Maharaj ANCKo kide historikoak orain hiru urte Pretoriako presidentziako bere bulegoan: “Mundu osoko gatazketan, askatasuna lortzeko borroka gizabanako batzuk lider bilakatu ditu, ezaugarri jakin batzuk dituztelako. Osotasuna mantentzen dute, gauzak garbi ikusten dituzte, gatazkekin leialak dira eta ez dute etsitzen. Beren idealak defendatuz jendearen zerbitzura egoiteagatik errepresioak sortutako min handia pairatzen dute. Pertsona horietako bat izan da Mandela. Munduak Apartheidaren preso guztiak irudikatzen sinbolo gisa erabili zuen, eta identifikatu zezaketelako irudi horretan oinarrituz, Hegoafrikako preso politiko guztien askatasuna eskatu zuen”.

Eta lortu zuten. Nazioarteko presioa hazten zihoan heinean, behin baino gehiagotan eskaini zioten aginte zuritik borroka armatua errefusatzearen truke kartzelatik irtetea. Uko egin zuen beti. Bere herria aske izan arte bera ez zela aske izango errepikatu zuen. 1990eko otsailaren 2an ANC legeztatu zuten, eta hila-bete bereko 11n kartzelatik atera zuten Mandela. Ukabila altxatuta ageri da orduko emaztearekin, tinko. Arrazismoaren eta Apartheidaren aurkako borrokan jarraitzeko indarrez, 71 urterekin. Bere azalean pairatu

Mandelak barkatzen erakutsi zion kontinenteari

ACCRA, Ghana — Urte luzez, bazirudien Nelson Mandelaren argazki bakarra zegoela. Argazki horretan Mandelak ile trinkoa, masail guriak eta begirada serio deliberatua zituen. Baina zuri-beltzeko argazkia zen, hain pikortua ezen antzinakoa zirudien (aspaldi joandako garai eta norbanako baten dokumentu bisuala).

1960ko hamarkadaren hasieran, afrikar indigenak jasaten ari ziren zapalkuntza sistematikoaz eta trataera gizagabeaz nazkatuta, Mandelak indarkeria eta gerrilla taktika bidezko plan arrakastatsua proposatu zuen, funtsean Afrikako Biltzar Nazionalaren adar militarra osatuz. Urte gutxitan, adar armatu hura aurkitu zuten eta buruzagiak atxilotu zituzten. 1964an Mandela erruduntzat jo zuten sabotajea egotzita eta bizi bitarteko espetxe zigorra ezarri zioten. Epaiketan, lekukotasuna eman ordez, Mandelak hitzaldia eman zuen akusatuen aulkitik. “Pertsona guztiak harmonian eta aukera berdinekin biziko diren gizarte demokratiko eta librearen itxaropena dut”, esan zuen. “Ideal horretarako bizitzea eta lortzea espero dut. Baina, behar izanez gero, ideal horregatik hiltzeko prest nago”.

Bost urte nituen Nelson Mandela 46664. preso bihurtu zenean, eta Robben uhartera, Lurmutur Hiritik iparraldera dagoen bost milia koadroko lur zatira deserritu zutenean, geratzen zitzaizkion urteak han eman zitzaizkion. Robben uhartearen lehenaldunentzako kolonia, eroetxea eta presondegia izana zen. Erbesteratze, zigor eta isolamendu gunea zen, pertsonak hara bidali eta ahazteko tokia.

Baina argazki horretako irudi oroitarazleak ez zigun ahazten utzi. 1970eko hamarkadan, bidegabekeria sozial eta politikoak salatzen zituen African Youth Command-eko (Afrikako Gazte Komandoko) kide izan nintzen. Mandela idolatratzen genuen. Argazkiaren posterra geneukan zintzilik logeletan; argazkia panfletoetan inprimatzen genuen. Ez genuen utzi Mandela hutsaltasunean itzal zedin; martxak, manifestazioak egin genituen, kontzertuak antolatu, prentsaurrekoak eman. Ahal genuen guztia egin genuen Apartheidaren gaitzak gaitzesteko, eta haren izena jendearen ahotan izan zedin. John Vorsterne, Jimmy Krugerren eta gobernuak baimendutako zurien nagusitasunaren aldeko beste zenbaiten irudiak ere erre genituen.

Afrikar askatasunaren alde borrokatzeko irrikaz geunden. Hala ere, etsita geunden Mandela hil artean espetxean egongo zela eta hegoafrikarrek ez zutela berdintasuna lortuko gu bizi ginen artean. Baina 1990eko otsailaren 11n miraria gauzatu zen; Mandela askatu zuten.

Mundua liluratuta zegoen. Bere azalean egonda zer egingo genuen galdetzen genion gure buruari. Amorrutik biziaren zain geunden, zentzuzko edonork ulertuko lukeen ordaina exijituko zuela espero genuen. Bizitzako 27 urte betiko joanak. Egunak joan, egunak etorri, gati-bu lanean, kareharria erauzten, harri zuriari etengabe

kolpeka eguzki distiratsu errukigabearen azpian, eguzkitako betaurrekorik gabe, malkobideak hondatu zitzaizkion eta, urte askotan, Mandelari negar egiteko gaitasuna ere kendu zioten.

Hala ere, Mandelak barkamena adierazi zuen behin eta berriz. “Ideiengatik espetxera joatea”, esan zuen, “eta sinesten duzunarengatik sufritzeko prest egotea merezi du. Gizakiarentzat lorpen handia da bere eginbidea betetzea, ondorioak gorabehera”.

Nelson Mandela buruz buru topatu nuenerako, Bakearen Nobel Saria emana zioten eta lehenago beltzek bozkatzeko eskubiderik ez zuten herrialdeko presidente hautatu zuten. Itxaropenaren ikur bihurtua zen, baita zauriak ixteko aukeraren ikur ere.

Garai hartan legebiltzarkide eta Komunikazio ministroa nintzen, eta nahiko berria politikan. Lurmutur Hirira joan nintzen lehenengoz. Lagunekin berandu arte kalean ibili ondoren, hoteleko gelara eramango ninduen igogailuaren zain nengoen. Ateak ireki eta Nelson Mandelarekin egin nuen topo. Pauso bat atzera egin eta geldirik geratu nintzen. Atea zeharkatu ahala, niregana begiratu zuen eta buruaz agur egin zidan. Ez nion keinua itzuli. Ezin nuen mugitu, ezta begiak kliskatzeko ere. Hantxe geratu nintzen, baldituta, zera pentsatuz: gizon honen alde aldarrikatu, kantatu eta negar egin genuen; zuri-beltzeko argazkiko gizona da. Hegoafrikarentzat eta, automatikoki, kontinente osoarentzat iparrorratz moral berria sortu zuen gizona.

Ez da ustekabekoa Mandela askatu zutenetik Afrikako hainbeste herrialde demokraziara eta legearen agintara hurbildu izana. Bakea askapenerako bitarteko gisa erabili zuen, eta horrek Afrikari erakutsi zion kolonizazioak eragindako zatiketa gainditzeko eta geure buruari egindako zauriak sortutako oinazea arintzeko errukiak eta barkamenak gobernuaren parte izan behar zutela. Herrialdeek eta herritarrek jasan duten trauma aitortu behar dute, eta adiskidetzeko bidea, hautsita zegoena bateratzeko bidea aurkitu behar dute.

Gau hartan, Nelson Mandela nire paretik pasa zenean, bere historia, askatasunerako bide luzea, Afrikaren historia ere bazela ulertu nuen. Garai batean gure kontinentean hedatu zen gaitzidura inspirazioak ordezkatu du. Orotariko gaitzen erasoak (gerrak, estatu kolpeak, gaixotasunak, pobrezia eta zapalkuntza) eragindako pesimismoa pixkanaka hazten ari den aukera sentipenak ordezkatu du.

Ez zen Nelson Mandela izan espetxealdiko urteetan aldatu zen bakarra. Denok aldatu ginen. Eta Afrika askoz hobea da horri esker.

John Dramani Mahama

Ghanako presidentea eta *My First Coup d'État: And Other True Stories From the Lost Decades of Africa* (Nire lehen estatu kolpea: eta Afrikako hamarkada galduen benetako beste istorio batzuk) autobiografiaren egilea da.



Historiara pasa den argazia: 1990eko otsailaren 11n kartzelatik atera eta ukabila altxatuta ageri da orduko emaztearekin.

zuen herri osoaren aurka egindako bortxak itsutu gabe, askatasuna eta arrazen arteko berdintasuna lor zitezkeela sinesten zuten.

Borrokalaria kalean berriz ere

Cape Town hirian, milioi bat pertsona baino gehiagoren aurrean eman zuen hitzaldian, demokrazia lortzeko borroka armatuarekin jarraitzeko beharra azpimarratu zuen berriro. Gobernuarekin herritar guztiek eskubide politiko berak izango zituzten egoera negoziatzen ibili ziren, eta azkenean hauen jarrera zintzoa zela ikusi zutenean, borroka armatua bertan behera uztea erabaki zuten. 1993an Bakearen Nobel Saria eman zioten berari eta orduko presidente zuri De Klerk-i.

Herrialdea guda zibiletik gertu zen, atentatuak eta tiroketak gertatzen ziren egunero. Ondoren analista politikoez azaldu dutenez, hauteskunde aurretik Alderdi Komunista-ko buru Chris Hani hil zutenean, Mandelak telebistan herritarrei lasaitasunerako dei egin zien unean bilakatu zen presidente, formalki ez, baina bai praktikan. Herrialdeak seinale bat behar zuen herritar beltzak armak eskuan altxatzeko. Ez zen halakorik gertatu. 1994an egin zituzten hauteskunde demokratikoak lehen aldiz. ANC irten zen garaile eta batasun nazionaleko gobernu osoa zuten beren arerio historikoekin batera.

Gatazken konponbiderako demokraziaren eta elkarriketaren beharra azpimarratu zuen

behin eta berriz. Hainbat kontzesio eginez, herrialdea batzea jarri zuen helburu bera presidente izan zen legegintzaldian. Hala ere, akatsa litzateke Hegoafrikak egin duen bidea Mandelaren mirariari egotea, gutxienez ANC alderdiaren lana aintzat hartu gabe. Mandelaren lidergo sendoa aitortzen dute eragile guztiek, baina itzalean jende asko aritu zen lanean, ondoren argitaratu diren liburu piloak erakusten duenez. Orain hiru urte, gatazka politikoa-ekin lotutako aitortza berriek osatzen zuten urteko liburuen kopuru handi bat.

Mandelak lorpen handiak egin zituen eremu politikoan, baina zilegi da aitortzea Madiba ezizenez ezaguna duguna ere ez zela perfektua. Bi gauza aurpegiatu izan zaizkio nagusiki. Batetik, hiesari zeukan adinako garrantzirik ez eman izana, munduko herrialderik kutsatuenetakoan; eta bestetik, nagusiki boteretsuek boteretsu izaten jarraitu zuten sistema ekonomikoa mantentzea. Bi hitzetan esateko, Legebiltzarra beltzentzat, eta bankuak zurientzat. Adibide bat jartzearen, baliabide naturalen ustiapen basatia egiten duten multinazionalak nazionalizatu ezean, zaila da oraindik pobrezia larrian diren herri-tarren egoera aldatzea.

Dena den, pazientzia eta konpromisoa aitortu behar zaizkio Mandelari, baita nazioa-ren berradiskidetzearan jokatu zuen papera ere. Eta boterea utzi izana legegintzaldi bat egin ostean. Ez da gauza ohikoa agintarien artean.

Zein Mandelari buruz ari gara?

MADIBA hitzak “aita” esan nahi du xoxa hizkuntzan, eta 95 urterekin hil den arte hala esaten zioten 1917ko uztailaren 18an jaio zen Nelson Rolihlahla Mandelari. Egun, Mandela gizadiaren ideal gailenen uste osoaren sinboloa da. Ideal horiek espetxera eraman zuten 1962an, eta han eman zituen 27 urte apalgarri, ziegan bakartuta, munduarekin inolako harremanik izan gabe.

Apartheidaren aurkako etengabeko borroka garaietan inork ez zion laguntzarik eman militante zaharrari, eta soilik Kubak lagundu zuen Wunkhoto We Sizwe (Nazioaren Lantza), Afrikako Biltzar Nazioanalaren adar armatua, sortzen. Garai hartan ez ziren existitzen gaur gorazarre egiten diotenak, egunkarrietan eta gainerako hedabideetan haren irudia lortzeko bere atzetik dabiltzanak edo, ongi idatzitako eta egituratutako sentsibilitate faltsuzko esaldien bidez antzekotasun behartuak bilatzen dituztenak.

AEBko egungo presidente Barack Obamak *Conversations with Myself* (Nire buruarekin hizketan) Nelson Mandelaren azken liburua hitzaurrea egin zuen. Hitzaurrea ongi idatzita dago, salmenta estrategiari erantzunez, baina bere burua Mandelarekin alderatzeko ahalegin behartua ere bada.

(...)

Ez naiz ausartzen Mandela ezkeraren eta eskuinaren artean sailkatzen. Kolonialismoaren historia-ko eta historia garaikideko erregimen arrazista okerraren aurka, Apartheidaren aurka, borrokatu zuen gizontzat daukat. Berak bazekien garai zailenetan jaso zuen laguntza, hein handi batean, nazioarteko ezkerretik etorri zitzaizola, eta inperialismo estatubatuar, ingeles, frantziar edo israeldarretik, horiek guztiak 27 urteko espetxealdiaren konplize izan baitziren.

Hegoafrikako testuinguruan kokatu zen gizona izan zen; lau milioi zurik, indarraren eta errepresioaren bidez, Xoxa, Zulu, Koishan eta jatorriz Hegoafrikakoak diren beste herri batzuetako 18 milioi pertsona mendean zituzten, baita hainbat etorkin hindu ere, horien artean Hegoafrikako arrazismoa jasan behar izan zuen Mahatma Ghandi. Hori ezkerrekoa izatea baldin bada, Mandela ezkerrekoa zen. Irakeko gerraren aurka azaldu zen eta, sarkasmoa erabiliz, Inglaterrako presidente Tony Blair AEBko kanpo harre-

manetarako ministro modukotzat salatu zuen, hark, NBEko kideekin, Collin Powellekin eta George Bushekin batera, Saddam Husseinek ustez zituen arma nuklearren inguruan gezurra esan zutenean, NATO-ren inbasioa justifikatzeko.

Mandela... amets osatugabea

Mandelaren borroka emaitza politikoak izan zituen: batetik, zientifikoki faltsuak eta moralki justifikaezinak ziren teoria horiek guztiak, afrikarrak beren herria gobernatzeko gai ez zirela ziotenak, Apartheidaren erregimenak asmatutako teoriak, bertan behera utzi zituen. Bestetik, presidente izan zen tarte laburrean (1994-1999) bidea zabalik utzi zuen adiskidetzeko nazionala lortzeko, bereizkeriaren eta arrazakeriaren kontrako borrokan aurrera egiteko. Eta hori ez da batere erraza, Mandelaren alderdiak, Afrikako Biltzar Nazionalak, boterean eman dituen 17 urteak ez baitira nahikoak 400 urtetako zentzugabekeria sozial eta psikologikoa erabat gaingintzeko. Baina ahalegina egiten ari dira, eta Hegoafrika gizarte bidezkoagoa eta orekatuagoa lortzeko bidean dela uste dugu. 2001ean Durban hirian burutu zen Arrazakeriaren Aurkako Munduko Biltzarrean izan ginenean, bide horretan emandako pausoak ikusi ahal izan genituen.

Gaur, Chávez eta Fidel Castro bezala, Mandela ikurra da Hegoaldeko herrialdeentzat, mendebaldekoek momifikatzen eta objektu bihurtzen saiatu diren arren. Kontsumo eta moda objektu bihurtu nahi izan dute, Che Guevararekin egin zuten moduan. Gaur, inoiz baino gehiago, Mandelaren diskurtsoak berrikusi behar ditugu, Fidel Castorri erakutsi zion esker ona, Irakeko gerra gaitzetsi izana. Ezin diegu utzi Mathir Luther Kingek “Amets bat dut...” esaldiarekin abiatu zuen hitzaldi ezagunaren ametsean ipini dezaten. Mandelak ez zuen lortu gizarte bidezkoagoa eraikitzeko ametsa boterean izan zen tarte laburrean... Mandela ondorengo Hegoafrikako ziurgabetasuna ez da adoretzeko modukoa. Gaur, Mandela, hegoafrikarrak hil zuten Mozambikeko buruzagi Samora Machelen alargun Graza Machelekin batera, planetaren adiskidetzearen erreferentzia puntu dira.

Jesús Chucho García,

Bamakotik, Mali. (*La voz de Afroamérica*).

Bere gobernualdian iraganeko zauriak ixtea jarri zuen helburu nagusien artean, eta behin hori eginda, erronka berriak dituzte orain.

Garbi dagoena da Mandela historian sartuko dela XX. mendeko Ghandi, Luther King, Kennedy edo Fidel Castro bezalako figurekin batera. Lider karismatikoa, estrategia bikaina, Afrika osoaren sinbolo izan da. Helburuak

garbi izatea zuen indargune nagusi, eta horiek lortzeko bidea intuitzen asmatu zuen.

Mandela jaunak ongi merezia dauka atsedena. Ortzadarraren herrialdean ordeaz gain, halako pertsona bat bertan jaio izana ospatzea erabaki dute. ■



GEMMA SANGINÉS SAIZ

«Hiztunek erdarara jotzeko arrazoï garrantzitsuena euskararen getizazioa da»

Valentziatik hiru egunerako bidaia azkar eta trinkoa. Iruñerriko Antsoain herrian asteburuko TELP tailerra eman ondoren eta hurrengo egunean Bakaikun “Es ke erdaraz ezagutu genuen elkar” bikoteentzako ikastarotxo eskaini aurretik, Gemma Sanginés psikologoarekin hitzordua ezarri genuen euskaraz eroso sentitzeko teknika eta baliabideei buruz galdetzeko. Presarik gabe, hitz eta pitz aritu zitzaigun gogotsu.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



Kirolaren psikologiaren mundutik nola heldu zinen hizkuntzen arlora?

Ferran Suay, nire bikotekidea, valentziarra da eta ni hara bizitzera joan nintzenean

konturatu ginen fenomeno nahiko paranormalak gertatzen zirela hizkuntzen erabilera inguruan. Adibidez, bere betiko lagunek berarekin erdaraz egiten zuten bitartean,

nirekin, katalanberri naizen honekin, katalanez aritzen ziren. Hori oso ohikoa da. Hizkuntza batean elkar ezagutu dutenek jarraitzen dute hizkuntza horretan mintzatzen, baina, aldi berean, ez zaie ongi iruditzen katalanez ikasten saiatzen ari den pertsona batekin katalanez ez egitea. Beste batzuetan gertatu izan zait hamabost minutu pertsona batekin katalanez aritu ondoren, nongoa naizen galdetzea eta Bilbokoa naizela erantzutean pertsona hori automatikoki erdarara pasatzea. Azken detonantea izan zen katalanaren aldeko manifestazio batean Estudiants per la Llengua taldeko gazte batzuk kafetegi batera sartu eta erdaraz eskatzen aditzea. Orduan ohartu ginen hizkuntza mantendu nahi duten eta haren aldeko jarrera duten hiztun batzuek gero ez dutela oso modu koherentean jokatzeko. Horrek eraman gintuen pentsatzera agian ez dela kontzientzia kontu hutsa eta praktikan nola jokatu behar den ere ikasi behar dela. Horrela bururatu zitzaigun agian guk, psikologo bezala, hiztunei tresna batzuk eskaintzen ahal genizkiela hori lortzeko. Hainbat alorretatik, kirolaren arlotik besteak beste, baliabide desberdinak hartu genituen hizkuntza asertibitatea lortzeko eta jendea eroso sentitzeko bere hizkuntzan mintzatuz.

Zer tresna dira horiek?

Kirol psikologiatik, adibidez, antsietatea kontrolatzeko arnasa hartzeko teknikak erabiltzea, gertaerak imajinatzea gertatu baino lehen, lortzen ari garena berriz ikustea progresibitateaz ohartzeko edo epe labur, ertain eta luzerako helburuak finkatzea, besteak beste.

Euskararekiko zure harremana nolakoa da?

Historia berezia da. Bilbon jaioa naiz, baina nire familiak ez zekien euskaraz eta ikasketak ere erdaraz egin nituen. Euskaraz aritzeko gogo asko baina gaitasun gutxi nuen. Mendizalea naiz eta mendira joateko hiritik irteten ginenean beti saiatzen ginen herrietan praktikan jartzen genekien apurra. Konplexu handiak zituzten hiztunekin maiz egiten genuen topo. Unibertsitate garaian euskaltegian hiru urtez aritu nintzen Salamancara joan arte. Valentziara bizitzera joan eta alabak jaio zirenean pentsatu nuen haiekin euskaraz nahi nuela hitz egin. Orain hizkuntza oporrak egiten ditugu eta urteoro Euskal Herrira etortzen gara uda garaian. Garai hartan ere hasi ginen TELP tailerrekin hona etortzen eta ikusten nuen horiek euskaraz eman behar zirela. Derrigorrezkoa zen niretzat, kontraesanetan erori nahi ez banuen.

Estres linguistikoa

“Euskara ez bada entzuten kalean, euskarara jotzeko momentuan zerbait arraroa, anormala egiten ari zara eta horrek estresa ekartzen dizu eta estres horrek euskaraz gutxiagotan aritzera eramango zaitu, sorgin-gurpil bat sortuz”.

Konplexuak dituen euskal hiztun asko dago?

Bai eta ikuspuntu askotatik: euskaldunberria izateagatik, euskaldunzaharra izateagatik, euskalki batean hitz egiteagatik, ez dakit noren aurrean aritzeagatik... Autoestimua falta handia dago hizkuntz gutxituen hiztunen artean eta hori buruan sartu diguten zerbait da. Hizkuntza gutxituen hiztunak askotan urpekariak bezalakoak gara: ur-azalaren azpian geratzen gara eta soilik eremu ziurretan ateratzen gara azalera. Modu berean erantzungo digutela ziur gaudenean baino ez dugu hitz egiten katalanez edo euskaraz.

Zergatik gertatzen da hori?

Konplexu hauen oinarrian badira arrazoi historiko eta mezu subliminal asko. Oraindik esaten da: izan zaitez kosmopolita eta ez kosmopaleto edo euskara bakarrik etxean erabiltzeko da, arraroa da, ez du ezertarako balio... Euskaldunen irudia baserritarra, zaharra eta ikasketarik gabekoa da, estatistikek kontrakoa dioten bitartean: egungo euskaldunaren profila gaztea da, hiritarra eta ikasketa maila handikoa, baina mito zahar horiek indar handia dute. Aurreiritzi guztien artean nagusia da euskaraz aritzea heziketa txarrekoa dela. Kortesia kontu horrek min handia egin du. Hiztun elebidunari maiz esaten diote erdaraz aritzeko, bi hizkuntzak ezagutzen dituenek berari berdin zaiolako. Baina badakigu pertsona desberdinak garela hizkuntza batean edo bestean. Zuk euskaraz pentsatzen eta sentitzen baduzu zure barne mundua askoz hobeki adieraziko duzu euskaraz eta hori errespetatu egin behar da. Esaten dizutenean zuri bost axola edo ez zaizula ezer kostatzen, eskatzen dizute ahalegin gehigarri bat egiteko eta ikasi behar dugu hori argi adierazten eta aldarrikatzen. Korte-

NORTASUN AGIRIA

Gemma Sanginés Saiz, Bilbon sortua 1970eko uztailaren 6an. Donostian eta Salamancan psikologia ikasi zuen, portaeren terapian eta kirol psikologian espezializatuz. 2003tik Valentzian bizi da. Terapia lanak egiten ditu, bereziki goi mailako kirolariek, klinika pribatu batean, eta duela gutxira arte baita Valentziako Unibertsitatean ere, “hori duela bi urte amaitu zen murrizketengatik”. Hizkuntzaren alorrean orain dela hamar urte TELP tailerrak (Taller d’Espai Lingüístic Personal) sortu zituen Valentziako Unibertsitateko psikologia irakaslea eta bere bikotekidea den Ferran Suayrekin. Geroztik hamaika tailer eta ikastaro eskaini dituzte Herrialde Katalanetan, Euskal Herrian eta Galizian. Ferran Suayrekin batera zortzi liburu kaleratu ditu: bost hizkuntzen inguruan eta hiru kirolaren alorrekoak.

Egungo ogia, biharko gosea

"Gauza askotarako ez dugu hizkuntza aldatu beharrik, baina arazoak eta zailtasunak ekiditeko egiten dugu. Jokamolde horrek epe motzean nahi duzuna lortzeko balio dizu, baina epe luzean oso ondorio txarrak ditu, euskara ez dela beharrezkoa erakusten ari zarelako".

siak bi norabidetakoa izan behar du eta ez beti norabide berekoa.

Baina berehala argudiatzen dute oso zaila dela, edonori ezin zaiola halakorik eskatu...

Oso merkea da hori esatea eta oso erraz lortzen dute mundu guztia erdaraz aritzea. Argi ikusi behar dugu horrekin esaten ari direla hizkuntza hori ez dela beharrezkoa, eta beraz, zertarako ahalegindu?

Guk, beraz, toki guztietan euskaraz?

Saiatu, behintzat, lehenbiziko hitza euskaraz egiten. Horregatik ez zaizu ezer gertatuko, aurrean duzuna euskarafobikoa ez bada behintzat.

Hemen Nafarroan askotxo dago.

Toki guztietan badira kasu klinikoak baina horrek ez du esan nahi hori zure arazoa denik. Begiradek ez dute inor hiltzen. Probatu behintzat. Norbaitek erantzun zakarra ematen badigu bere arazoa da. Bere gaitasun faltagatik edo auskalo zergatik egongo den haserre. Behin eta berriz jo behar baduzu halako pertsona batengana, lehen aldian sufrituko duzu, baina hurrengoetan badakizu zer aurkituko duzun. Gainera argi eduki ez jakitea ez dela trastorno mental bat edo egiturazko arazo bat. Ez jakitea aldagai bat da, alda daitekeen zerbait. Gu irakasle izan gaitezke haien zentzuan, neurri batean, eta nahi izanez gero.



Merkatuko kontsumitzaile gisa nola egin deza-kegu euskararen alde?

Bezeraok gara eta merkatuaren hierarkian goian gaude. Horrekin jolastu behar dugu eta bozgorailuak jarri: "Etorri naiz dirua gasta-tzera eta han egingo dut eta ez hemen, han



Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



OFF THE RECORD

Han ere txakurrak ortozik

Valentziara, etxera itzultakoan, sorpresa bat aurkitu zuen Gemma Sanginésen elkarrizketa honen biharamu-nean: Ferran Suayk eta berak 2000. urtean idatzitako *Sortir de l'Armari lingüístic* liburuak berriz polemika sortu duela Mallorcan. Hango institutu batean batxilergoko bigarren mailako ikasleei irakurtzera eman zieten eta Així no plataformak salaketa jarri zuen Conselleria de Educación-en, "zama ideologiko handiko liburua" dela esanez.

jasotzea, kasurik ez egitea, hitz ederrak jasotzea edota beste bati esatea... Gure eskubide hauek zeintzuk diren ikasi behar dugu.

Asko hitz egiten da euskararen getizazioaz.

Getizazioa oso kaltegarria da. Hizkuntza bat bakarrik independentistek eta ezkerrekoek hitz egiten dutenean hizkuntza horrek eta bere irudiak arazo bat daukate. Hiztun arruntarentzat oso nekagarria eta zigor handia izaten da, inork ez duelako kalean etiketekin ibili nahi. Hiztunek erdarara jotzeko arrazoi garrantzitsuena euskararen getizazioa da gaur egun.

Honetan zer egin dezakegu?

Nik adibidez, batzuetan esaten diot jendeari lelokeria bat izan daitekeen zerbait egiteko: beren irudia, arropa, ilea... aldatzeko, adibidez dotore jantzi eta hizkuntzaren inguruan modu asertiboan jokatu. Horrela molde eta aurreiritziak apurtuko ditugu. Diru asko eta denbora asko gastatu dute euskara estigmatizatzen eta biolentziarekin lotzen eta berdin jarraitzen dute. Adibide bat: Espainiako telebistan euskaraz zerbait aditu izan denean ETArek aurkako polizia operazio baten inguruan izan da ia beti. Hori ez da kasualitatea, helburu zehatza duen estrategia baizik.

Kaleko hitzunei askotan esaten digute ETAzaleak garela edo ergelak, helburu politiko baterako erabiltzen gaituztelako. Zer egin dezakegu?

Gure esparruan, gure inguruan eragin eta mugitu, ahal dugun heinean. Guk ez daukagu tresnarik goitik antolatutako gerra horretan parte hartzeko. Egoera hori ez sartu gure barruan, hori ez delako gure errua. Erruaren kontzeptua oso barneratua dugu gure kultura judu-kristauan, eta honek askotan immobilismora eramaten gaitu. Aldiz, arduratsua sentitzen bazara, zure inguruan behintzat gauzak egiten ahal dituzu.

euskaraz artatzen nautelako". Jakin behar dute haien jarrerak kostu bat daukala, ez dela dohainik. Kontsumitzaile gisa horrela jokatzea erabakitzen baduzu haiei adieraztea merezi du, hizkuntzaren beharra sortzen ari zarelako.

Jendea zeren bila etortzen da TELP tailerretara?

Tresnen bila. Asertiboak izateko eta mintzatzeko eroso sentitzeko teknikak eman nahi dizkiegu.

Asertibitatea, funtsean, pentsatzen duzuna modu onean baina argi esatea da?

Horixe. Isiltzeak galerak ekartzen badizkizu, gauza batzuk esan egin behar dira. Ez soilik hizkuntzaren alorrean, noski. Gizarte bizi gara eta gure eskubide asertiboak ditugu, inork gutxi ezagutzen dituenak. Ezetz esatea, kritikak egitea, iritzia ematea, kritikarik ez

Eta hurrek euskaraz gehiago egin dezaten zer egin daiteke?

Umeez imitazioz funtzionatzen dute eta hel-
duak haien artean erdaraz aritzen badira
haiek berdin egingo dute.

Baina eredu ona ematen zaienean ere erdarara
lerratzten dira maiz.

Faktore asko hartu behar dira kontuan, adibi-
dez telebistaren eragin itzela. Telebista euska-
raz edo katalanez ikusterik ez badute, erraza-
go joko dute erdarara. Nik hori argi ikusi dut
Bakaikuko gure lagun batzuekin: hurrek
telebista euskaraz ikusi ezin dutenetik, Nafa-
rroan ETB3 ez delako ikusten, guraso kon-
tzentziaduna duten haur euskaldun peto-
petoek ere erdarara jotzen dute lehen baino
%50 gehiago. Saioak ez ezik, iragarkiak ere
hartu behar dira kontuan eta horiek askotan
ETBn eta TV3en ez dituzte itzultzen. Horren
ondorioz hurrek ikasten dutena da jostai-
luek erdaraz egiten dutela. Telebistan hizkun-
tza bati murritzeta eta oztupoak ezartzen
dizkiotenean badakite oso ongi zer egiten ari
diren eta zertarako. Dena den, hurren gara-
penean telebistaren eraginarengatik urte txar
batzuk izango dira, baina helduek euskaraz
edo katalanez egiten badiete gero normalean
haiek ere horrela egingo dute.

Katalana, oro har, nola dago Valentzian?

Hizkuntzaren ezagutza oso altua da. Erabile-
ra lekuaren arabera da. Argi dago hizkun-
tza paisaia erabat aldatzen dela gure jarrera-
ren arabera. Zuk katalanez hitz egiten baduzu
aurkitzen duzu jende gehienak ulertzen dizu-
la eta askok ere katalanez egiten dizutela.
Batzuek esaten dute nekez aurkitzen dituztela
katalan hiztunak Valentzia hirian, baina aitort-
zen dute, era berean, beti erdaraz hasten
direla mintzatzen.

Eta hezkuntzaren alorrean?

Hango gizartearen beharra ez da betetzen

Aurreiritziak

**"Oso ezaguna da
aspaldian
Mallorcako
kantari beltz bati
gertatu zitzaion
pasadizoa.**

**Taberna batera
joan eta kafea
katalanez
eskatutakoan
tabernariak
erantzun zion:
'Katalanez hitz
egin didazulako,
bestela
pentsatuko
nukkeen beltza
zinela'. Askotan
ebidentziek baino
ozenago hitz
egiten dute gure
aurreiritziak".**

ari. Valentzian badira 25.000 ume katalanez
ikasi ezin dutenak, gobernuak esaten duela-
ko plazarik ez dagoela. Horretarako dirurik
ez dagoela diote, baina beste gauza askotara-
ko bai, jakina denez. Oso errealitate gogorra
da.

Ekimen pribatuko murgiltze ereduko ikastetxe-
rik ez dago?

Oso gutxi. Kooperatiba moduan antolatuta
hemengo ikastolak bezala, oso gutxi. Esku
bakarreko hatzekin zenbatzeko adina.

Eta TIL edo antzekorik ez dute abian jarri?

Hasi ziren esaten proiektu eleanitza ezarri
nahi zutela, Mallorcan bezala. Valentzian jen-
dea oso bero dago horrekin eta beste gauza
askorekin ere bai. Eta egoera behartzen segi-
tzen badute jendea kalera aterako da, Mallor-
can bezala.

Orain arte Valentziako agintariek bazuten
dirurik jendea erosteko eta haien errealitatea
sortzeko komunikabideetan, baina gero eta
zailagoa dute ezkutatzea egin dituzten lapu-
rreta eta gehiegikeriak.

Katalana Katalunian, Ipar Katalunian, Balearre-
tan, Principat-en, Valentzian, Andorran eta
Aragoiko ekialdean ere mintzatzen da.

Bai. Azken horri "la franja de ponent" deitzen
zaio eta hori da, hain zuzen ere, katalana bizien
dagoen eskualdea. Erabilera %90ekoa da. Ara-
goiko Gobernu horren aurka saiatzen ari da
etengabe eta maiatzean onartu zuten hizkun-
tzen lege berriaren testuan desagertu dira ara-
goiera eta katalana izendapenak. Haien orde-
z agertzen dira Pirinioak eta Aurre Pirinioetako
Eskualdeetako Hizkuntza Aragoitarra
LAPAPYP eta Ekialdeko Eskualdeko Hizkun-
tza Aragoitarra LAPAO.

Izenak izana dakar.

Bai, hala da. Katalana desagerra-
razi nahi dute Aragoitik. ■



NEIGHBOR
Ura Patrikan - CD

ANGEL UNZO & TXUMA MURUGARREN
14 ABESTE eta... - CD

BIDE ERTZEAN
77 - CD

BERAT FUENTES & BRENDAN DONNELLY
Te-Uhinak - CD

CAPSULA
Solar Secret - LP/CD

LA JODEPERA
Karibe Kantauri Kantari - CD

LOS GALERNA
Akelarre - LP/CD

PAUL SAN MARTÍN
Paul's Mood - CD

JOSEBA B. LENOIR
Tenpesta - EP

ANEIKA ARA
Aneika Ara - CD

IGOR ARZUAGA
Experience - CD

IGOR ETA NI
Llegara - CD

GAZTELUPEKO HOTSAK
WWW.HOTSAK.COM

Errabal, 23 - 20590 SORALUZE
tel. +34 943 753 016
fax +34 943 750 139
gaztelupeko@hotsak.com

«Adinari ez diot kasu handirik egiten, sentsazioei baizik»

Erremontean, Koteto Ezkurak lortu ditu Banakako txapel gehien, 11 guztira. Bestelako txapelketetan ere makina bat garaipen eskuratutakoa da. Izan ere, Jesus Abregorekin batera, historiako erremontista handiena da doneztebearra. 40 urte bete ditu aurten eta frontoietan jarraitzen du, sasoiko, eta jokatzeko segitzeko asmoa du gainera, “maila ona ematen eta nire burua gustura ikusten dudana bitartean”.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Gazte debutatu zenuen, 16 urterekin, eta azkar egin zenuen gora. Arriskutsua al da hori? Nola gogoratzen duzu garai hura?

Ilusio handiarekin debutatu nuen, gazte-gazte, eta gaur izango balitz bezala gogoratzen dut. Pilotari taldea handiagoa zen, partidu gehiago jokatzeko genituen, 10-12 hilero, festibal aunitz zirelako. Kategoriak ere markatuagoak zeuden orduan, lau kategoria, eta bakoitzean urtebete egin nuen nik. 1994an Estelarrera pasatu nintzen eta kolpea 1995ean eman nuen, baina enpresariak esaten zidan ikusi behar zela ea kasualitatea zen ala ez, eta

ezetz ikusi da. Zeruan nintzen, baina beti oso errealista izan naiz, zuhurra, gauzak landuz, ongi eginez, txorakeriarik gabe... Etxekoek ere bastante kontrolatzen ninduten, zeren gaztea zara, erdi-famatua, baduzu dirua... Eta norberaren izaera ere garrantzitsua da.

Hastapen haietatik 24 urte igaro dira dagoeneko. Nola lortzen da 24 urtez goian mantentzea?

Hainbeste urtetan egoera gogorak ere badiara, batez ere jaisten ari zarelarik eta aurretik izandako mailarekin konparatzen zarelarik, gazteak etortzen dira atzetik eta egurra ematen dizute, baina ilusioa baldin badago lortzen duzu. Orain ere fisikoki denboraldi larriak izaten ditut, ezin dut urte osoan topera egon, baina punta-puntan segitzen dut, ilusioa badudalako eta prestatzen naizelako. Nire maila ematera ateratzen naiz eta pila bat disfrutatzen dut erremontean, nire bizitza erdia baino gehiago pasa dut hemen eta hau da nire bizitza.

40 urte bete dituzu aurten. Uste al zenuen adin honekin profesionaletan eta sasoi onean jarraituko zenuela?

Adinari ez diot kasu handirik egiten, sentsazioei baizik. Mediku eta masajistek jarraipena egiten didate, ongi prestatzen naiz eta nire gorputza oso ongi ezagutzen dut. Ezauzgarri batzuk besteekin ordezkatzeko dituzu gainera: lehen fisiko aldetik aunitz jokatzeko nuen eta urteetako esperientzia baliatu dezaket orain. Argi daukat nire burua frontoian barregarri ikusten dudana egunean joan egingo naizela, baina hiru urte barru ongi baldin

banago, segi egingo dut. Jende gazteagoarekin ari naizela badakit, baina maila ona ematen dudana bitartean eta nire burua gustura ikusten dudana bitartean... Iazko udaberrian oso gaizki egon nintzen, moralki, prestatzen ere ez nintzen ari, eta hilabete eta erdiz utzi nuen, batzuetan

barrenetik uste dugulako jokatzeko dugula benetan jokatzeko duguna baino gutxiago eta horri gehitzen badiotzu jendearengandik komentario ezkorrak entzuten hasi nintze-la... Jokatzekoan, maila ona emanez egingo dut, eta horregatik prestatzeko eta baldintza onetan bueltatzeko utzi nuen frontoia denboraldi batez.

Esperientziak gain, jokorako buru ona duzu. Irabazteko orduan zenbaterainoko garrantzia du buruak?

Handia. Apustuak eta presioak daude eta oso fuertea izan behar duzu buruz, batez ere konpromisoak ailegatzen direlarik, final batean

“Apustuak eta presioak daude eta oso fuertea izan behar duzu buruz, final batean adibidez. Halakoetan batzuk uzkuritu egiten dira eta beste batzuk hazi”



adibidez: halakoetan batzuk uzkurto egiten dira eta beste batzuk hazi. Hor ikusten da zein den oilar bat, zein ez den beldurtzen, eta nik uste frogatu dudala alde horretatik fuetea naizela. Nire buruarekiko konfiantza handia izan dut eta horrek garaipen aunitz eman dizkit.

Apustuak aipatu dituzu. Sentitzen duzue publikoaren presioa, jendeak dirua jokoan duenean?

Bai, batez ere garai batean, hainbeste jendekin eta hainbeste diru tarteko zenean. Tentsio handiko egoerak sortzen ziren, beldurgarriak, baina esandakoa, norberaren izaerak egiten dio bati tentsioaren aurrean pausoa atzera edo aurrera ematea. Momentu oso politak bizi izan ditut frontoian, baina baita oso tentsuak ere, eta horiei aurre egiteko burua behar da. Famari ere ezin diozu utzi burura igo-tzen, ezin zara txoratu, urteekin ikasten da hori.

Beti goian egon arren, 2005eko txapelaz geroztik ez zenuen besterik lortzen Banakako-

“Sartu nintzelarik entzuten nuen jada, erremontearen amaiera iritsi zela, eta 24 urteren ostean hemen jarraitzen dugu”, dio elkarriketatuak, Galarretan egin dugun hitzorduan.

“Denek pentsatzen zuten nire garaia igaro zela, baina 38 urterekin txapela irabazteak erakutsi zidan oraindik hor nengoela, gauza horiek ematen dizute aurrera jarraitzeko indarra”

an, baina 2010ean eta 2011n hamargarren eta hamaikagarren txapelak iritsi ziren. Errautsetatik birsortua?

Urte gogorrenak horiek izan ziren: lau urte pasa nituen ezin nire maila eman, lesioak tarteko... eta 2010ean Buruz burukoan oso ongi hasi nintzen, konfiantza hartu nuen eta irabaztea niretzat moralki bultzada oso handia izan zen. Erremonte munduarentzat berdin, denek pentsatzen zutelako nire garaia igaro zela jada eta akituta nintzela, baina 38 urterekin txapela irabazteak erakutsi zidan oraindik hor nengoela, gauza horiek ematen dizute aurrera jarraitzeko indarra. Aurten txapeldunari irabazi diot

[Javier Urriza], [Julen] San Miguel ere hortxe-hortxe izan dut eta oso kontent nago egiten ari naizen pape-rarekin.

Bakarka ala bikoteka nahia-go?

Banakako txapelketa oso polita da, gainera udan da, giro ona dago, buruz buru lehiatzen zara... baina oso gogorra da eta azken urteetan ondorioak ekartzen dizkit, fisikoki min hartu-

KOTETO EZKURRA



Ezkurrak argi du: “Frontoian *malaostia* behar da, ona, ez oihuka eta tontakeriatan hastea, baina bai *punch* hori, lehiakortasuna”.

ta geratzen naiz, azkenaldian iskiotibiala da nire ahulgunea. Urte osoan jokatzeko, hobe da bikoteka, baina azken puntu hori Buruz burukoak ematen dizu.

Daramazuen erritmoak ez du gorputza gehiegi zigortzen?

Lehen baino gutxiago jokatzen dugu orain. Garai batean 12-13 partidu hilean eta orain bospasei. Hainbeste urte horrelako mailan eta horrelako exigentziarekin, egia da gorputzak astindu ederra eraman duela. Orain ordea, astean behin-edo jokatzen dugu eta sobera luzea egiten zaizu itxaronaldia, partidu gehixeagorekin makinaria berotzea gutxiago kostatuko litzaiguke, baina egungo egoera hori da. Lesioei dago-kionez, zorte handia izan dut, ez dut inoiz lesio larririk izan eta orain urradura txikiekin-eta nabil, muskulua asko ibilia eta nekatua dagoelako eta sobera eskatzen badiozu ez dizu uzten.

Zergatik uste duzu duela eskuak erremonteak baino arrakasta handiagoa?

Aita eskuzko pilotaria nuen eta berak animatuta hasi nintzen erremontean, eskua hondoratuta zegoelako eta erremontea aldiz oso ongi. Urte batzuk oso onak bizi izan ditugu, baina eskuak telebistarako urratsa eman zuen eta horrek eman zion indarra. Telebistan asko galtzen du erremonteak, soinu batez

“Eskupilotak telebistarako urratsa eman zuen eta horrek eman zion indarra. Telebistan asko galtzen du erremonteak eta eskuz kontrakoa: frontoian baino ikusgarriagoa da”

ere, eta eskuz kontrakoa: irabazi egiten du, frontoian baino ikusgarriagoa da. Erremontea gainera zailagoa da zabaltzeko, eskuz aritzeko pilota eta pareta baino ez dituzulako behar, eta erremontean saskia eta abar behar dituzu.

Telebistaz erremonte gutxi ematen dela uste duzu?

Oso gutxi. Lehen gutxi ematen zen, orain are gutxiago eta gainera Canal Sateliten edo horietakoren batean. Laguntza sobera ez dugu izan, eskupilotara joan da dena eta guri bizirautea tokatu zaigu. Hala ere, sartu

nintzelarik entzuten nuen jada, erremontearen amaiera iritsi zela, eta 24 urteren ostean hemen jarraitzen dugu.

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Gainbehera zegoenean modernizatzea eta egokitzea tokatu zaio erremonteari. Oriamendi 2010 enpresak bere gain hartu zuen duela hiru urte eta berrikuntzaren bideari heldu dio...

Aldaketa handia izan da, bai. Lehengo enpresak betiko funtzionamendua eraman zuen, baina azkenerako akitu egin zen. Oraingo enpresa moldatu dela eta gauza handiak egiten ari dela uste dut. Gaurko krisi egoerak dena zailtzen du, baina jendea lan pila bat egiten ari da, ideia onak dituzte (frontoia berritu, kinielak...) eta ea denon artean mantentzen dugun. Etorkizuna gazteen esku egongo da...

Zer moduzko lana egiten ari dira erremonte eskolak?

Oso lan ona egiten dute. Garai batean Euskal Jai Berrikoa [Huarten] eta hemengoa [Galarretan, Hernanin] baino ez zeuden, baina gero Doneztebekoa, Iruñekoa, Azpeitiko... sortu dira eta ilusio handiz ari dira. Dena den, enpresarenak berarenak dira denak, ez dira klub autonomoak (eskupilotan bezala) eta zailagoa da zabalkuntza; gazteak animatzen dira telebistan agertzen bazara eta gu ezezagunagoak gara. Instituzioen laguntza behar dugu. Badirudi laguntza eskatzen duzularik dirua eskatzen ari zarela, baina ez da hori, eskola muntatzeko, gauzak egin ahal izateko eta aurrera segitzeko laguntza nahi dugu.

Pilotak eta saskiak asko aldatu al dira 24 urteotan?

Bai, badirudi orain pilota asko ibiltzen dela, baina jokoa lehen biziagoa zen. Kontuak kontu, partiduari eta apustuak egiten dituztenei saltsa ematen dien osagarria da pilota: bizia dela, motela... Saskiak ere aldatu dira: lehen zumitzez eginak ziren eta orain plastikoz estaliak. Horrek ere asko eragin dio jokolari, efektua galtzen duzulako adibidez, baina

Galarreta

"Berritu egin zuten eta Euskal Herri osoan ez dago horrelako beste frontoirik. Erosoa eta polita, taberna, jatetxe eta aparkaleku zabalarekin... Jokatzeko gozamina da, luxua, niretzat Euskal Herriko katedrala".

aldi berean ez dira lehen bezala puskatzen eta bote-lasterrean sartzeko beldur gutxiago duzu... Jokoa aldatu da, gauzak aldatzen doaz, bakoitzak bere garaia du eta moldatzen joan behar gara.

Garaietara eta aldaketetara ere moldatzen jakin behar...

Bai, pilota aldaketa, saskiarena, enpresarena... bizitu ditut nik eta ezin zara atzera begira jarri, "gure garaikoa zen onena". Gehiago edo gutxiago gustatu, dagoenera moldatu behar zara, bertzela baztertu egiten duzulako zure burua.

Frontoi gehiagotan ez jokatzea eta profesional talde bakarra izatea oztupo dira erremontearen zabalkunderako?

Bai, ederra izango litzateke beste enpresa bat egotea, horrek lehia eta pikea sortuko lukeelako, elkarren kontra txapelketa jokatu ahal izatea, baina...

31 erremontista profesional ari zarete gaur egun. Zer moduzko taldea da?

Politik. Gazteak badira, atzetik ere ilusioz datoz eta nahiz eta sobera aukera ez egon, eskoletatik beti ateratzen da baten bat. Orain gustura hartuko genuke izar bat, *krak* bat, erremonteari haizea emateko, berreskuratzeko. Ni atera nintzenean bezala. Leku guztietan lider bat behar da, lider nabarmen bat, jendea erakartzeko gai dena.

Zer moduz ikusten duzu iloba, Ezkurra II.a?

Ongi, badaki ederki jokatzen, baina *malaletxe* pixka bat falta zaio, *punch* pixka bat. Batzuetan erraten diot pipermina sartuko diodala, kar, kar, kar. Gaztea da oraindik, ea saltoa ematen duen. Frontoian *malaostia* behar da, ona, ez oiherka eta tontakeriatan hastea, baina bai *punch* hori, lehiakortasuna. ■





ERREMONTE JAIALDIAK

Ostegunero eta larunbatero
Galarreta Jai-Alai pilotalekuan

ZATOZ IKUSTERA!



info@oriamendi2010.com

www.oriamendi2010.com



argia 2014ko egutegia

- Zientzia eta teknologia
- Txistek
- Denboraren makina
- Bertsoak
- Ezagunek esanak
- Euskara “xuxenean”
- Mikro-ipuinak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak



EGUTEGIA

9€

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari



BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

Salgai dagoeneko!

Lurra denona izan dadin

Lurzaindia SCA Ipar Euskal Herriko laborariek sortutako kolektiboa da. Azken hamarkadetan pairatzen ari diren laborantza lurren espekulazio eta galeraren aurrean, kolektibo honek lur horiek erosi eta merkatutik behin betiko ateratzeko ardura hartu du.

| LIDE HERNANDO |

IPARRALDEAN turismoak gora egin duela-eta, orain arte laborantzarenak izan diren lur asko eta asko azpiegiturak eta etxebizitza berriak eraikitzeke erabili dira. “Laborariz osatutako hainbat kolektibo kezkatuta geunden arazo larri horren aurrean”, dio Dominique Ameztok, Euskal Herriko Laborarien Batasuneko (ELB) kideak. “Kezka horren fruitua da 2013. urte hasieran sortu den Lurzaindia”.

Kolektiboa, aurretik laborantza lurren alde borrokan aritutako beste zenbait talderen batasuna da: ELB, Arrapitz, Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) eta Inter Amap (laborantza herrikoia atxikitzearen aldeko familiez osatua). Lurzaindiaren eginkizuna zera da: kideek ordaindutako kuoten bidez diru-funtsa sortu eta laborantzarako lur oro saltzean dagoen bakoitzean, lur hori eros-ten lehenengoak izatea. Horrela, lur hori Lurzaindiaren jabetza izatera igarotzen da, merkatutik ateraz, eta ezingo da berriz saldu. Laborariek erabili ahal izango dute, baina partikularrak jabe izan gabe.

“Frantziako Estatuan, lur ororen salerosketan erabaki eskubidea duen erakunde bat dago, SAFER izenekoa. Edozein jabe lurren bat saldu nahi badu, erosleak erakunde horrekin hitz egin behar du lehenbizi, eta ahal badu, prezioaren berrikusketa bat eskatu ere –azaldu du Ameztok–. Guk beti lehenengoak izan nahi dugu hori egiten, lur hori edozein enpresa eraikitzailek baino lehenago eskuratu ahal izateko”.

Lurra zaintzeko, erne egon behar

Lurzaindia hiru zatitan banatua dago: alde batetik, kolektiboa osatzen duten kide guztiak biltzen dituen biltzar nagusia, kuota ordaintzen dutenak alegia; bestetik, lurren salerosketarako dirua kudeatzeaz arduratzen den taldea, ERNE izenekoa; eta azkenik, zaintza eta etika kontseilua. “Kolektiboak 1980ko hamarkadan existitzen zen beste



Lurzaindiako kideak kolektiboaren inaugurazioan, 2013ko urtarrian.

sozietate bati hartu dio lekukoa. Sozietate horrek noizean behin diru-bilketa kanpainak egiten zituen salgai zeuden etxaldeak eta horien lurak erosteko. Lurzaindia sortu genuenean, sozietate horrek erosita zituen hamasei etxaldeak gure baitan hartu genituen. Ezberdintasuna da SCA formulari esker etengabe dirua biltzen aritu gaitezkeela, hau da, ez diogula inongo erakunderi baimenik eskatu behar dirua biltzeko”.

Kolektiboa nahiko berria denez, oraindik ez dute lur berririk eskuratu, oinordekotzaz jasotako hamasei etxalde horiez gain. Gaurko egunez jada 240.000 bat euro bilduak dituzte, baina salerosketa prozesuan daude oraindik: zenbait lur begiratzen, beste batzuk negoziatzen, SAFER erakundearekin harremanetan... Baina, batez ere, espekulazailen aurrean aditzera ematen: “Laborariok arazo larri bat bizi dugula jakinarazi nahi dugu, eta ez garela besoak gurutzaturik geldituko. Gainera, hainbat herriko etxek ere dirua eman digute. Horrek esan nahi du Ipar Euskal Herriko udal batzuk ere gure alde ditugula”, azpimarratu du Dominique Ameztok. ■





DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

ETAren aurka hobeto bizi ote ginen bada?

ERREALITATEA ondo ezagutzen dugula uste dugun arren, askotan ezaguera hori partziala da, eta bestetan, errealitatea baino gure nahia besterik ez dugu ikusten.

Errealitate soziala konplexua bada ere, esango nuke gutxienezko oinarri komuna badagoela, oso gutxienezkoa bada ere.

Gure oinarri hori etorkizunari lotuta dago. Herri honetan etorkizuna merezi dugula erabaki genuen aspaldian eta horrela jakinarazi genien itxaropen hori ukatzen ari zitzaizkigunei, batez ere –baina ez bakarrik– ETari. Herri honek hausnarketa sakona eskatu dio ezker abertzale tradizionalari; desagertzea exijitu dio ETari eta indarkeria mota guztiekin bukatzea –baita Estatuarena ere– ezinbestekotzat jo du etorkizun hori eraiki ahal izateko.

Eskaera horiek helburu zehatzak zituzten: giza eskubideen urraketa gelditu, gure elkarbizitza lortu eta etorkizuna sendotu, elkarbizitza eta adostasunaren bidez. Baina hori guztia posible al da? Benetan lor al daiteke elkarbizitza? Gure aurrean ikusten ditugun oztopoak gaindi al ditza-kegu?

*Indarkeriaren biktimak –ETArenak bereziki–
sufritzen ari dira: ez dute ulertzen zer gertatu
den orain arte eta ez dute onartzen
horrenbeste kalte eta min egin dizkieten
horiek kalean egotea eta gure gizartearen
parte izatea*

Garai berria baina zaila zabaltzen ari da Euskal Herrian. Berria, bizikidetzat hobetzea eta bake-bidea jorratzea posible ikusten delako. Zaila, oraindik ere politika normalizatzea urrun ikusten dugulako eta iraganak zauri eta esperientzia larriak utzi dizkigulako.

Etorkizunak baldintza sendoa behar du: aniztasuna. Gure herrian dagoen pluralismo ideologikoa eta soziala aukera ezin hobea da elkarbizitza errotzeko, denon begiradak, sentimenduak, sufri-

menduak eta ametsak beharrezkoak direlako. Kolore askotako etorkizun aberatsa nahi dugu, inor kanpo geratu gabe.

Aniztasuna bai, baina abiapuntu komuna: iraganari begirada kritikoa luzatzea eta elkarbizitza normalizatzea. Hemen daude zailtasunak eta aukerak ere.

Etorkizuna aurreikustea ez da erraza. Baina iragana “iragartzea” ere ez. Oso zaila da iraganari buruzko ideia partekatua izatea, interpretazioa eta subjektibismoa batera doazelako. Baina iragana pentsatu eta adierazterakoan asmo konpartitua behar dugu –sikiera asmoa–.

Eginbehar horretan talde politikoei zeresan handia dute, noski. Eta esaten ari dira, euren zailtasun, interes eta beldurrekin. Alderdiei behin eta berriro exijitu behar zaie interes horiek gizartearen ilusioa itzal ez dezaten eta interes orokorrari hel diezaioaten.

Herritarrok ilusio handiz ezagutzen ari gara hainbat esperientzia interesgarri eta eskuzabal: biktimen arteko topaketak; biktimak eta presoaren arteko elkartzak; herritarren arteko elkarbizitza... Pentsatzekoa da ekimen hauetan iraganak toki handia izango duela, baina etorkizuna berea hartzen saiatuko dela.

Indarkeriaren biktimak –ETArenak bereziki– sufritzen ari dira: ez dute ulertzen zer gertatu den orain arte eta ez dute onartzen horrenbeste kalte eta min egin dizkieten horiek kalean egotea eta gure gizartearen parte izatea. Baina herri honek –beste herri gehienek bezala– ez dauka beste erantzunik: justiziarik gabeko gizarteak ez du aurrera egiten. Herri honek biktimei zor diena haxe da: kaltearen injustizia aitortzea –ez zilegitasuna– eta elkartasuna adieraztea, egia eta justiziaren bitartez. Baina gizarte honek ezin die elkarbizitzari eta etorkizunari uko egin: hori bai izango litzateke erremediorik gabeko injustizia orokorra. Gure seme-alabek ez ligukete inoiz barakatuko.

Indarkeriarik gabeko gizartearen hobeto biziko gara denok, denok biziko garelako. Ala ez? ■





SANTU BAINO GEHIAGO

KONPOSTELA, ERDI AROKO EUROVEGAS:

HORI BAI MIRAKULUA!

KRISTAUTASUNA ABIAN DA ZINEZKO JAKUE BERTABLEAREN
(beste 11 agertu dira EUROPA) hobira BURUZ...

- ERREGE-ERREGINEK HIRIBILDUAK FUNDATZEN DITUZTE BIDEAREN ZOLAN:



ETA ERDALDUNEZ POPULATZEN, ETA HIRITAR BERRIOI
ESKUBIDEAK EMATEN DIZKITE -FORUAK- BERTAKOEN
GAINEAN.

- ★ EUSKALDUNEI BETATU EGITEN ZAIE PARADISU LIBRE
HAUETAN SARTZEA ERE:

<NI NAVAR (...) NI INFANÇON AVARCA>

ETA ORDEZTEA EMATEN DA BOTERE-KARGUETAN ERE:

<OMNES NAVARROS EXPULSI>

ERROMAK ERE BALIATZEN DU BIDEA BERE MANUA
EZARTZEKO: BURULEHEN BAT, FEDE BAT,

HIZKUNTZA BAT

EUSKALDUNOK NOLA IKUSTEN GINTUZTEN DONE
JAKUE BIDETIK XII. mende hartan?

ZERRIAK IDURI LUKETE, ETA BERBETAN ENTZUN BAZENITU,
ZAKUR ZAUNKARIAK EMATEN DUTE, EZEN MINTZAJEA BAITUTE
ARRONT SALBAIA (...) JENDE BASA, LARRU BELTZA,
GAIZTAKERIAZ BETERIK, MALTZURRA, AHARRA-GOSEA, ABEREKERIA

MINTZO MODERNO BEZAIN TRANSBERTSALA: ^{GUZIEI} EMANA...

SANTIAGO Y CIERRA, ESPAÑA!!!

Dabid Anaut

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



Enpatia bila, geure buruaren alde

AURRERANTZEAN, euskaraz eginen duten euskaldunok bi —edo hiru— hizkuntzatan ongi moldatzen diren hiztunak izanen dira. Sarritan, erdaraz euskaraz baino hobeki moldatzen direnak gainera. Euskaraz eginen dute, baina ez ezinbestean euskaldun elebakarren garaian bezala, hala nahiko dutelako baizik. Gauzak ikaragarri aldatzen ez badira behintzat.

Gutako askok, ez denek jakina, bi aukera izanda euskaraz egitea hobetsiko dugu, halaxe nahi dugulako. Nahi edo sentimendu hori ez guke akaso denek berdin azalduko, askotariko bulkadak egon bailitezke horren atzean: ideologikoak, kulturalak, erosotasunari lotutakoak...

Ez naiz deus deskubritzen ari eta irakurle horrek hainbeste badakizu. Susmoa dut, ordea, askok ez duela guretzat bistakoa den kontu hau usaintzen. Alegia, euskaraz egin nahi dugula hobeki sentitzen garelako, ez dela apeta hutsa. Euskarari eusteak hainbatetan sortzen dizkigun gatazkak eta deserosotasun handien eta txikien gainetik euskaraz egin nahi izaten dugu, hain zuzen ere, batean edo bestean ez garelako berdin sentitzen.

Saiatzen ote gara, ordea, gure barruko sentimendu hori azaltzen erdaldunei, esate baterako? Egoera jakin eta ohiko bat daukat gogoan eta horretaz ariko naiz:

*Ez gaude ohituta
hizkuntza erabilera
emozioekin eta
sentimenduekin lotzen,
eduki formal eta
ideologikoekin osatzen
dugu euskararen
inguruko diskurtsoa*

zazpi euskaldun + erdaldun bat = zortzi erdaldun. Erdaldun bakar hura gaizki edo deseroso senti ez dadin, gu sentitzen gara gaizki, etsiak hartuta, gurekin beti euskaraz ari direnekin erdaraz arituta, errikulua- ren eta egonezinaren arteko sentsazio arraro batean.

Ez baikaude ohituta hizkuntza erabilera emozioekin eta sentimenduekin lotzen, eduki formal eta ideologikoekin osatzen baitugu euskararen inguruko diskurtsoa, batzuetan erdaldunen enpatia aktibatze-ko aukera bat galtzen ari garela iruditzen zait. Egin dezakegu euskaraz, noski, eta zortzikotearen egoera horretan hala egin behar dugula iruditzen zait niri behintzat. Eta egin dezakegu inori argibiderik eman gabe, guk ere badugu normal aritzeko eskubidea.

Baina agian aiseago gaitutuko genituzke egoera jakin horietan euskaraz aritzeko konplexuak eta ezintasunak gure ondokoen —gure inguruko erdaldunek ari naiz— erresistentziak erortzen ikusiko bagenitu, eta uste dut gure sentimendu horiek noizean behin behintzat adieraztea behar beste erabiltzen ez dugun arma bat dela horretarako. Adierazteak merezi duenean, jakina, ez baita beti horrela izaten! Merezki duenean, horrenbestez, azaldu, hitz egin, eta hortik aurrera eutsi lasai geureari. ■



DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Gure sor lekua

“GURE ZINEMAREN historia petrala” idatzi zuen Koldo Izagirrek, badu kapitulu berri baterako gaia. Euskal Herriko Unibertsitateko hiru kide, prentsaren aurrean, aurkikuntza eder baten berri ematen; euskarazko filmik zaharrena aurkitu omen dute, 1956koa, *Gure Sor Lekua*, frantses armada-ko jeneral hazpandar batek egin, baina historiaren paradoxa, film horrek soinu-askas. Hitzik ez.

Artxibategi Nazional batek ere ez zukeen hobeki eginen, bideoa kontserbatu da, baina audioa ez. Ez dakit jatorrizko gidoigileak nola kontatzen ote zuen ordu-

ko historia, baina hitzak zakarretara bota galdu ahaztu ezkatatu jaso edozer egin duenak ederki kontatzen du gure egoera berria. Ni ez nintzateke audio horren bila zokorik miatzen hasiko. Ez nioke musikarik ere erantsiko. Dagoen horretan utziko nuke. Paisaia eder bat bere mututasun mingarrian.

Izan ere, Iruña-Veleiako ostraketako gure hitzak egiazkoak ote diren ez dakigu oraindik, delako film horren isiltasuna egiazkoa dela sinets dezakezue, neuk diotsuet. ■





Imanol Miner

♦ EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO KIDEA

Plazara, zertara?

HOLAXE galdetu zidan *abizpak*, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Herriko Plazan antolatutako elkarretartzera gonbidatu nuenean. Niretzat nabarmena zena berarentzat ez zen nonbait, eta gogora ekarri nion, 90etan, gay eta lesbianen eskubideen aldeko mugimenduetako arduradunek ezkontza eskubidearen alde egin behar genuela adostu zutenean, nola batek baino gehiagok bere buruari galdetu zion: plazara, zertara eta ezkontza eskubidearen defentsan? Horixe egin baikenuen, ekainaren 28an bezala, urteak dituen gainontzeko egunetan ere, 2005ean Espainiako Estatuan eta amaitzear dugun 2013an Frantziakoan, lege aldaketak gertatu diren arte, izan ere, helburua ez zen ezkontzea, gainerakoekin eskubide eta betebeharretan berdintasunean bizitzea baizik.

Sexu askapenerako borrokak, feminismoa izan zuen aitzindari eta azken honek egindako aurrerabidearen erakusgarri da ARGIAren 2.392 alean, azaroaren 24koan, Estitxu Eizagirrek egindako erreportajea. Hezkidetzaz hezkuntzan du aztergaia, eta bertan, besteak beste, Elorrioko Institutuko esperientziak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetzaz eta Genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Planaz dihardu. Bere esparrutik harago begiratzeko gai den edozein hizkuntza teknikariren bekaizkeria esnatzeko modukoa da artikulua, terminologian, edukietan, ikuspegietan eta lan prozeduretan puska bateko aldea ateratzen dizkion ikastetxeetako edozein hizkuntza normalizazio plani.

Eta hau guztia diot, uste dudalako, euskalgintzak ere,

aurreko askapen prozesuak izango dituela aitzindari XXI. mende hastapen honetan. Horretarako, bere burua askapen prozesu gisa irudikatzen asmatu beharko du eta beste askapen prozesuekin aliantzak eraiki, hizkuntzen eta hiztunen berdintasun printzipioa eztabaidaren erdigunera ekarriz. Izan ere, egun indarrean dauden hizkuntza legeak berdintasun printzipioa urratzen dute eta honek eguneroko bizitzan botere harreman desorekatuak elikatzen ditu hiztun talde desberdinen artean, errealitatea desitxuraturaz, sufrimendua eraginez eta elkarbizitza zailduz.

*Egun indarrean dauden
hizkuntza legeak
berdintasun printzipioa
urratzen dute eta honek
eguneroko bizitzan
botere harreman
desorekatuak elikatzen
ditu hiztun talde
desberdinen artean*

Euskaltzaleon Topagunearen eskutik lehenengoz “Euskarak 365 egun” kanpainarekin, erakundeen ospakizun eta adierazpenekin osatutako Euskararen Nazioarteko Egunari kaleko oinezkoen ahotsa eta lekukotasuna gehitu nahi izan dizkiogu. Eguna geure egiteko, kolorea eta bizitza ematera atera gara kalera, dagokigun lekuan jartzera, hemen gaude esatera, askatzera, nonahi, noiznahi, orain, hemen, geu izateko euskararen herrian. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

IXA taldeari



DANI BLANCO

**Aitor Sarriegi
Galparsoro**



Doinua: Espainian behera.

Lau lagunen haziak
bi mundu zeharo
ezberdin uztartzea
lortu du luzaro.
Euskararen jendea
ohizkotik harago
Xri eransteaz
oso harro dago
beste X bat eta
V bat gehiago.

Sarri esangatik
urteurrenetan
Mila zorion IXA!
...gaurkoan benetan.
Zuk lortu duzulako
dauzkazun urtetan
tokia egitea
non ta ikerketan!
Emitzei begirako
gizarte honetan.

Atzo zela dirudi
baina aspaldi zen
ordutik zenbat ordu,
lagun eta izen...
Ea asmatzen duzun
luzaro segitzen
hizkuntzaren puzzlean
piezak aurkitzen
eta hiztunarentzat
tresnak eraikitzen. ■

«Hitzik gabeko unibertso ikusezin hori da agian musikari nomadaren aberria»

Hemen aukerarik ez eta atzerriratu behar izan duen talentu horietako bat da Maite Larburu. Sortzez hernaniarra, Amsterdamen bizi da egun. Antzinako musika eta biolina ditu ogibidea. Josh Cheathamekin batera Neighbor taldea osatu eta *Ura patrikan* (Gaztelupeko Hotsak) ondu berri du, bere espezializazioarekin zerikusirik nekez duen diskoa. Harkaitz Cano eta Asier Altuna izan zituen aita ponteko, aurkezpenean.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Azal iezaguzu zure ibilbide profesionala. Nola heldu zinen Amsterdamera?

Donostian biolin ikasketak amaituta abiatu nintzen Amsterdamera. Musikari askok egin ohi dute atzerriratze hori. Nire kasuan, musika klasikoaren tradizioa indartsu den herrialderen batera joateko beharrean sentitzen nintzen. Hasiera batean AEBetara joatea zen nire plana, baina ez ziren gauzak nahi bezala irten, eta azkenean, Amsterdameko Kontserbatorioan sartzeko audizioak egin nituen eta onartu egin ninduten. Bertan pare bat urtez biolin tradizionala ikasten aritu ondoren, antzinako musikan espezializatu nintzen.

Zergatik hautatu zenuen biolina eta zergatik antzinako musika?

Egia esan, ez dakit zergatik aukeratu nuen biolina. Haurra nintzela, etxean bazen Vivaldi-ren *Lau urtaroak* kasete zahar bat... Ez genuen musika klasikoaren ezagutza handiegirik, hartaz gain. Kasete hura izan ote zen biolina jotzeko gogo piztu zidana? Akaso bai. Musika, oso maitea nuen zerbait bazen behintzat, gurasoak sarri aritzen ziren kantuan, nik ere askotan eskatzen nien kantatzeko; neba-ahizpak ere musika zaleak ziren, eta haiek entzuten zutena entzuten nuen neronek ere.

Biolina ikasten hasi eta gutxira, irakasleak talentua nuela esan zion amari, eta ordutik aurrera biolin-jotzaile izateko ametsa forma hartzen hasi zen.

Antzinako musikaren hautua maitemina-

ren ondorio izan zen. Biolin barrokoaren hotsarekin maitemindu nintzen, Amsterdamen pare bat kontzertu ikusi ondoren. Eta nire biolin tradizionalako irakasleak bere biolin barrokoa utzi zidan, Gustav Leonhardt klabezin jotzaileak zuzendutako proiektu batean parte har nezan. Proiektu hark harriturik utzi ninduen, jakin-minez; Leonhardt oso gizon berezia zen, ez dakit, eta kutsatu egin zizkidan bere antzinako musikarekiko errespetua eta maitasuna. Rameau eta Mozarten lanak jo genituen, eta oraindik gogoan dut, ordura arte ulertezinak iruditzen zitzaizkidan pare bat gauzak, bat-batean, biolin barrokoa eta arku barrokoa eskuetan, zentzua hartu zutela musika hartan.

Momentu hartantxe erabaki nuen, artean Herbehereetan izanik, antzinako musikan espezializatzeko aukera aprobetxatu beharrean nintzela. Antzinako musikaren soinu ideala ere asko gustatzen zait; sinpletasuna, hauskortasuna, araztasuna.

“Musikak zerbait eraldatzen du gorputzean, zainetan, odolaren ordean, batzuetan lainoa eta beste batzuetan tximista ibiliko balitzaizu bezala”

Zeintzuk dira zure lan baldintzak, gutxi gorabehera?

Zenbait orkestra eta ganbara talderekin kolaboratzen dut. Talde batzuekin sarriago besteekin baino. Herbehereak, Alemania, Belgika eta Frantziakoak dira, batik bat. Horietan proiektuak kontratatzen naute, eta kontzertuak askotan hainbat lurraldetan izaten direnez, bidaian ibiltzen gara lekuan lekuko kontzertuak emanez. Inoiz ezin jakin hemendik



G.U.G.

ERDIKO KAIERA

jolas bat da: orain asko gustatzen zaidan zerbait egin, orain gutxiengo atsegin zaidan beste zerbait...

Norberaren mugak non dauden jakin ezinik, gustatzen zaizunaren eta gustatzen ez zaizunaren arteko marra hori ere ikusezina izaki, sorpresa asko hartzen da.

Hala ere, pribilegiatua naizela iruditzen zait, nire afizioak bizitzeko adina ematen baitit... luxuzko bizimodua dut, nolabait. Ez materialki, baina bai idealki.

Zer da musika zuretzat?

Adierazteko modu bat da niretzat, edo adierazteko beste modu bat, hitzen beharrik ez duena. Musikak zerbait eraldatzen du gorputzean: odolaren isuria lurrundu edo erreko balu bezala; zainetan barrena odolaren ordeztatu batzuetan lainoa eta beste batzuetan tximista ibiliko balitzaizu bezala.

Zer entzuten duzu etxean? Zerk inspiratzen zaitu?

Denetarik pittin bat entzuten dut etxean; XVI eta XVII. mendeetako “viola da gamba consort”-ak asko gustatzen zaizkit, Holborne, Scheidt, baita Gesualdoren Madrigalak ere, The Beatles, lagunek ateratako diskoak, Ruper Ordorika, Janis Joplin, Teitur, Joni Mitchell, Billie Holiday... Ezin denak aipatu. Baina musikarik gabe isiltasunean egotea ere izugarri maite dut. Gehienetan musikarik gabe egoten naiz etxean.

Aipatu dizkizudan horiek denek, eta gehiago ere, asko inspiratu naute urteetan.

Azal iezaguzu nola elkartu zineten Cheatham eta biok Neighbor osatzeko.

Antzinako musikaren inguruko zenbait orkestratan egin genuen topo elkarrekin. Ganbara talde ttiki bat ere sortu genuen ondoren, Pantomime, biolina, viola da gamba eta klabezinarekin. Hobeto ezagutu dugu elkar apurka, bidaia dezente ere egin ditugu

bi urtera zenbat lan izango dudan, pittinka joaten da betetzen agenda... eta askotan, baita gehiegi bete ere! Interesatzen zaizkidan proiektuek elkarrekin talka egiten dutenean bata ala bestea aukeratu beharrean izaten naiz. Zaila egiten zait hori!

Musika duzu ogibide eta afizio. Nola bereizten dituzu bata eta bestea, alegia afizioa eta ofizioa, zein egoeratan, zein momentutan?

Galdera ona, baita zaila ere. Proiektu batzuek norberari atsegin zaizkion alde bokazionalak lantzeko aukera ematen dute, eta orduan, ogibidea eta afizioa gauza bakarrean elkartzen dira. Beste batzuetan ordea, afizioak ez du leku handiegirik izaten, ogibidearen baitan den “beharraren” zentzu horrek afizio idealaren askatasunarekin talka egiten baitu. Baina

ZION GOSPEL ESPIRIT
Abenduak 20, ostirala 21,30etan
Bastero Kulturgunean

ANDOAINGO UDALA
bastero KULTURGUNEAN
k kuxabank

Ura patrikan

ESATEN DUTE kantu on bat zure aurrean jartzen den paisaje bat dela, bizitzen jarraitzea merezi duela esaten dizuna. Eta horixe sentitzen dugu Neighbor-en kantutak entzutean.

Kantutak —edozein kantu, kantu guztiak— bitan sailka daitezke, agian: etxera eta paisaje ezagunetara eramaten zaituztenak batetik, eta etxetik paisaje ezezagunetara aldatzen zaituztenak, bestetik. *Ura patrikan* diskoan biak aurkituko dituzue. Etxean zaudelarik urrun sentiarazteko gaitasuna duten kantutak eta atzerrian zaudelarik etxera eramaten zaituztenak. Etxe eta atzerri, elkarrengandik bereizten zailak diren ore batean nahasi arte. Desterrua gazia eta gozoa izan daitekeelako. Hala dio Maitek *Harria, papera, guraizeak* kantu gogoangarrian. Izan ere, Maitei e-mail bat idaztea mundumaparaitsu-itsuan dardo bat jaurtitzea bezala da, inoiz ez dakizu Hegoafrikatik ala Japoniatik erantzungo ote dizun. Eta kantuetan ere nabari da mugimendu hori

“Maitei e-mail bat idaztea mundumaparaitsu-itsuan dardo bat jaurtitzea bezala da, inoiz ez dakizu Hegoafrikatik ala Japoniatik erantzungo ote dizun. Eta kantuetan ere nabari da mugimendu hori”

Popa, jazza, bluesa, folk ukituko doinuak, musika indiarra... Askotariko kantutak aurkituko ditu bertan entzule liluratuak. Kantu atmosferikoak, poetikoak, umoretsuak, naif-ak, klasikoak, eguneroko mirari ttipiak kontatzen dituztenak.... Zenbait kantuk bitxilore bati hostoak kentzen dizkiozun bitartean entzutekoak diruditen bezala, —alegrantziaz eta arintasunez, pentsamendua zuri-zuri utziz, alegia—, beste batzuk instrospektzioarako eta katarsirako dira egokiago.

Entzute hutsa aski da ohartzeko kantariak arropa nola aldatzen duen. Sasoi betean dagoen jazzaren dama baten soinekoa janzen du orain —Madeleine Peyroux-ek Billie Holiday-ri maileguan hartutakoa (Bird, White Music, Little River)—, eta etxeko zapatilekin doa geroxeago, edo hankautsik baserrira doan

bidean gora, edo aireportuko nekea erantzi ezinik, egunerokotasunari gurpilean ziri bat sartu nahian.

Kantu guztiak dira elkarren nahiko ezberdinak, baina denak ala denak elementu gutxi eta xumeeekin eginak. Hitzak ederrak, guztiak Maitek idatziak. Eta bera oso pertsona ordenatua denez, ordenatuak dira bere kantutak ere. Objektuen eta pentsamenduen zerrendak egiten ditu, ideien asoziazio aske, erritmiko eta erakargarriak (maiteminararen sintomen zerrendak, demagun, edo

herrimina sentitzeko motiboen zerrendak...). Surrealismo ukitu batek zipriztintzen ditu hitzak tarteak. Baina abusatu gabe. Oso sotil. Eta zertarako erabiltzen ditu hitzak musikarena beste laguntzarik gabe den-dena esaten dakienak? Erantzuten ez dakien galderak egiteko, bere buruarekin hitz egin eta kontraesanak azalaratzeko. Galderen erantzuna kantua bera delako.

“Non daude Neighbor-en aurreko sei diskoak?”, galdetzen du entzule harrituak. Kantari baten zazpigarren diskoa dirudielako Cheatham eta Larbururen honek. Baina talde bezala argitaratzen duten lehena da. Zaila sinesten. Bizipoza eta freskotasuna badiu lehen diskoarenak, baina hortik aurrera, lehen diskoek ohi duten urduritasunaren eta dena erakutsi nahiaren izpirik ez. Ez dirudi lehen diskoa, ez. Eta ez dirudien gauza gehiago ere bada disko hau: ez dirudi euskal kantari baten diskoa, diskoko kantuen erdiak euskaraz abestuta egonagatik. Ingelesa hautatu du beste kantu gehienetarako. Ingelesa eta neder-



landera direlako haren etxeko sukaldean gehien entzuten diren hizkuntzak. Hautu naturala.

Dena baita izan naturala Maite Larbururen kantaeran. Naturala bere gaztelania jostaria gaztelaniazko kantu bakarrean. Naturala jada klasiko kutsuarekin jaiotzen diren kantuetan darabilen ingelesa (“*Ambitious man* blues ikaragarria,

Mississippiko zein txokotan lapurtu ote dute? Ezin du haiena izan!”). Eta naturala, nola ez, euskaraz abesteko hautatzen duen gipuzkera. Izan ere, aspaldion badirudi oso *cool* bihurtu dela bizkaieraz abestea, baina inor gutxi ausartzen da euskara batua bistatik galdu gabe kanturako hizkuntz erregistroa gipuzkeraz goxatzen.

Tiki esaten eta ez txiki. Nuntzare? eta ez non zaude?

Hizketan dakitenek eta hitzaren indarrak nahi dutena lortzen dutenek hitz egiten duten naturaltasun berberarekin kantatzen du Maite Larburuk. Sofistikazio eta sentiberatasun samur batekin ertz guztiak harrapatuz. Erritmoa behar duenean kantua erritmoz eta baikortasunez gainezka jarritz. Nahi duen lekura eta ñabarduretara eramaten gaitu. Naif-etik traszendentziara. Nostalgiatik umorera. Nostalgiari umorez aurre eginez. Noiz xuxurlari —siltasunari baimena eskatuz— noiz ahotsari ia puskatu arte gora libre joaten utziz, sordinarik ipini gabe. Kantaerak eta kantatzen denak bat egiten dute, harrigarriro. Bizi puskek kantu eginak. Poza eta sosegua ematen duten kantutak.

Aurtengo udazken-neguan ez da jendearen patrikatan txanponaren txin-txin hotsik sobera entzungo. Horren orde, ez daukat honetaz dudarik, Ura patrikan nola daramagun entzungo da.

Harkaitz Cano



Maite Larburu eta Harkaitz Cano Donostiako udal liburutegi zaharrean, *Ura patrikan* diskoa aurkeztu zen egunean.

gure taldearekin. Josh-ek viola da gamba eta kontrabaxuaz gain, gitarra eta beste hainbat instrumentu ere jotzen ditu, eta niri kantuan aritzea gustatzen zitzaidala eta, nire kantu pare bat erakutsi nizkion, maiz, banda bat egin eta beste musika mota bat jotzearen ideiarekin txantxetan aritzen baiginen. Joshi kantuak asko gustatu zitzaizkion eta errealtzio instrumentalak sortzen hasi zen... Prozesu hau hainbat aldiz errepikatu da, diskoa osatu dugun arte.

“Gazia da desterrua kontzertu polit bat eman eta publiko artean eseririk etxeko inor ez dagoela ohartzean; edota nire burua euskaraz adierazi nahi eta ezin dudanean”

Josh eta biok bizilagunak gara, Amsterdameko auzo berean bizi gara; horregatik aukeratu genuen Neighbor [bizilaguna, ingelesez] taldeari izena ematerako garaian.

Ura patrikan izenburua ipini diozue diskoari. Zer adierazi nahi duzue?

“Ura patrikan” hitzak *Ezin* kantuen parte dira. Izenburu horrek diska ongi deskribatzen du iruditzen zitzaien, bat-bateko sententzio bat sortzen duelako, irudimena segituan martxan jartzen duelako... Eta ura patrikan

eramatea ezinezkoa izan arren, irudimena suspertzeko duen modu horrexek berak, ezin den hori posible egiten du. Azken batean, ezinezkoa eta posible dena zehazki zer den jakitea gaitza delako. Horrek inspiratu gaitu.

Desterrua gazi-gozoa da zure hitzetan, noiz gazi eta noiz gozo? Hala bizi du Cheatham-ek ere? Nostalgia ere egiten diozue keinu, eta herminari... Nolakoa da zure/zuen aberria?

Gazia, adibidez, kontzertu polit bat eman eta publiko artean eseririk etxeko inor ez dagoela ohartzean; edota nire burua euskaraz adierazi nahi eta ezin dudanean. Edota Holandako lautadari begira jarri eta mendirik ikusten ez dudanean.

Gozoa, behar dudana guztia maleta barruan dudala sumatzen dudanean, beste lurral-

deetako paisaia eta jende zoragarria ezagutzen ditudanean, beste hizkuntzetan beste pertsona bat izateko aukera dudala iruditzen zaidanean.

Josh-ek bizitza osoa pasa du alde batetik bestera. Bere familiarekin ere maiz mugitu izan da haurra zenetik. Ez dut uste nik bezainbesteko loturarik duenik aberriarekin. Baina Josh ere oso nostalgikoa da, uste dut musikari asko garelako nostalgikoak... Jotzeko garaian musikak sortzen duen hitzik gabeko mundu ikusezin hori da askotan faltan nabari duguna, horren bila gabiltza... unibertso hori da agian, musikari nomadaren aberria.

Umetan amestu zenuenaren antzik ba al du zure gaurko bizimoduak? Ezer falta izatekotan, zer falta du?

Ttikia nintzela, ahizpak galdetu omen zidan behin: “Handia zarenean zer egingo duzu?”. Hala erantzun omen nion: “Etxe txiki batean biziko naiz Parisen, beste bikote batekin”. “Eta nondik aterako duzu dirua?”, ahizpak. “Bankutik!”, esan nion.

Ez da zehazki hala gertatu, baina tira, bankuarena egia da, Amsterdamen bizi naiz, ez beste bikote batekin baina bai nire bikotekidearekin eta beste sei lagunekin, etxe handi batean. Biolin jotzailea naiz, amets hori bai, hori bete da.

Falta zaidana, zera da: nagoen lekuan nagoela, ezeren faltarik ez sentitzea. ■



Nafarroa 1512: herri xumearen sufrimendua dantzan

Iruñeko Ortzadar euskal folklore elkarteak 29. kultur jaialdia antolatu du aurten, eta zenbait ekimenen artean dantza nabarmendu du. Nafarroako konkista gogoratu, bizirik dagoen herria dantzatu eta euskarazko eskaintza baliatu. Horixe, Barañaingo jaialdiaren funtsa.

| AINHOA MARIEZKURRENA |



JOAN DEN URTEAN 500 urte bete ziren Gaztelak eta Aragoik Nafarroa bereganatu zutenetik. “Jaialdia iaz egitea litzake idealena, baina egoerak ez zuen ahalbidetu eta atzeratu egin behar izan genuen”, adierazi du Mikel Lasarte Ortzadarreko kideak. Izan ere, Barañaingo udalak aurten eskaini dizkie folklore jaialdia aurrera eramateko lekua eta baliabideak.

Gipuzkoako Alur eta Nafarroa Behereko Garaztarrak taldeek hartu dute protagonismoa ekimenean, Ortzadarrekin batera. Bi taldeok askotan eskaini dute Nafarroako konkistari buruz sortutako ikuskizuna, baina gutxitan Nafarroan. Ikuskizun guztiak euskaraz sortuak direla azpimarratu du Lasartek, eta garrantzitsua dela, “dantzaz gain, musika, kantak eta hizkuntza baitira folklorearen oinarri”.

1512 *Izanak Dirau* izenburupean gidatu zituzten oinak Alur taldeko dantzariak, Barañaingo Auditorioan, azaroaren 17an. Elisabete Nosellas taldeko kidearen esanetan, garaileen ikuspuntutik kontatuta dagoen historiari buelta eman eta “ezkutuan zegoena” azaleratzeko helburua izan zuten Aluraren. Nafarroa Euskal Herria izan bazen, gaur zergatik ez den izango bota du airera Nosellasek: “Gertaera 1512an izan zen arren, Nafarroak badauka oraindik izateko motiboa”.

Donibane Garaziko Garaztarrak taldeak dantza tradizionalak egin ohi ditu, baina

garaikidearekin nahasita osatu zuten *Kontrapas*, azaroaren 10ean Barañaingo Auditorioan eskaini zutena. Euskal Herriaren nortasunari buruzko saioa da, musika, antzerkia eta poesia barne hartzen dituen. Euskarak bizirik dirauela azaleratzen du, besteak beste.

Ortzadar dantza taldearen *Librea ninçana* ikuskariak emango dio amaiera jaialdiari, abenduaren 15ean. Dantzariak Nafarroarekiko maitasuna errepresentatuko dute, sufrimendu eta errepresio betean. “Kateatu ninduzun libre nintzena” esaldiak lotu du bereziki maitasuna konkistarekin.

“Gertatutakoa oroitu eta herritarren sufrimendua argitara ekarri nahi dugu”, adierazi du Lasartek. Sufrimendua era askotan ulertuta, bakean dagoen herri bateko biztanleak protagonista direla: borrokara edo erbestera alde egin behar izan zutenak, ondasunik gabe gelditu zirenak, bortxatuak... Omenaldi gisa, pisu handia izango dute emakumeek, “herria aurrera ateratzen rol oso garrantzitsua bete baitzuten garai hartan”.

Iluntasun horretan, ordea, ez da dena beltza. Ikusleari herria zutik dagoela erakutsi eta mezu positiboa helarazi nahi diote Ortzadarrekoek. Historia edo istorioa barrutik atera zaiela aipatu du Lasartek.

Taldearen ardatza dantza tradizionala den arren, sentimenduetan oinarritutako emanaldi bat sortu nahi dute. Dantza bakoitzeko sentsazioek elkarloturik osatu dute historia, eta hark herritarrengan utzi zuen arrastoa sentiaraziko dute.

Datorren urtean bi urtebetetze ospatuko ditu Ortzadar taldeak, folklore elkarteak 40 urte egingo baititu, eta jardunaldiek 30. Horien inguruko ekimenak buruan, gogotsu dabil Ortzadar. Nafarroako dantzen Atlas osatzea lehentasunen artean dute, bestalde. ■



FINALA

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013



BARAKALDO

BILBAO EXHIBITION CENTRE
Abenduak 15, 11:00etan



Eitor
Mendiluze



Eitor
Jarriegi



Enets
Orzáiz



Beñat
Gaztelumendi



Igor
Elortza



Maialen
Lujanbio



Iusturai
Colina



Unai
Ibarriaga

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA





Helduen Literatura | POESIA

Parisen bizi naiz
Koldo Izaguirre
Susa, 2013

Neguko hotza bezain ona

URGENTZIAZKO IRUZKINA eskatu zidaten *Deiako Ortzadar* gehigarriak Izagirreren poesiaren gainean, eta artean *Parisen bizi naiz* azken honen herena-edo irakurria nuelarik, barruak halako bat egin zidan, emozio bat *Balitzko erroten erresuma* irakurri nueneko garaietara eroan ninduen, poesiak funtzio bat zeukala barruntatzen hasi gineneko militantziara. Eta idatzi nuen: “Gure erbesteko ahotsa den moduan Joseba Sarrionandia, Koldo Izaguirre begitantzen zait barruko militanteen mailu eta kontzientzien erauntsi...”. Eta berresten ditut berba horiek *Parisen bizi naiz* bukatu eta penaz itxi dudan honetan, zerua aratz eta eguzkia hotz, eta berriro diot, musika berezi bat dario Izagirreren letrari, indartsua da eta leuna eta kontsentsura ekargaitza.

Poesiak bakarrik ezin dituenek bihotzak eta kontzientziak konkistatu, Izagirrek kontakizunak bihurtzen ditu poemagai eta gure garaiko manifestu, izan neurtitzetan, neurri bako hitzetan zein artikulatu moduan.

Donostia darabil mende hasiera honen metaforatzat. Arkitektura urbanismoari gailendu zaion hipokriten garaia deskribatzen du, non itxurak ez duen mamirik nahi, non turistak aurkitu nahi duen gauza bera edonon. Beharraz lotsatzen den Kantauri ertzeko *8eme arrondissement* batetik esaten digu, beraz, kontuz ibiltzeko, historiaren amaierara ez

garela oraino iritsi: “Beste inor hurbiltzen ez bada nik badakit/ behineneko landareak ez direla muskil- du espaloietan/ baizik zapatak hondatu izan ditugun erre bideetan”.

Topografia horretarako hizkuntza tentuz hautatu du Izagirrek, poesia lar poetikotik urrun eta zurruntasun errealistatik ere bai. Erdibideko bertute horren zerbitzura dagoen mintzaira bat da ia liburuko euskara, ereduazko euskal-gaiztotik urruntzen dena eta benetan euskaraz egiten genueneko tonuaz oroitzen gaituena. Horrek egiten du irakurraldia gozo eta liburua gailen; eiteengatik da hunkigarri, aberastasun eta malgutasun euskaldunagatik eder. Mintzaira horri esker gorpilik gabeko neumatikoa- ren goma hutsa bihurtzen da “neumatiko begihustua”, eta aditzaren elektzioa poesiaren klabea bera: “Bihotza ez du ibiltzen/ beti bihotz berak”.

Izagirrek idazle autonomiatik opatzen du bere indarra paradigma berriak indartzeko. Literatura zabal kulturen ilusioa opatzen digu orrialderik orrialde, eurrez-eurrez erabiliz, irudimena beste, herriaren jakitea. Poesiaren puruz poesia bera gaindituko du halako batean, gainditzen diren bezala kontradikzioen puruz gizarteak. ■

Igor Estankona



Liburu azoka

Hondarribian, abenduaren 11tik 15era San Pedron.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Euskal gabon kantak: abesbatzaren eta jazz laukotearen fusioa

NEGUKO SOLSTIZIOKO gau luzeenak Eguberriaren etorrera iragartzen digute. Kaleko argiek eta apaingarriek bazterrak alaitzen dituzte eta txiki-txikitik abestu ditugun eguberri kantak nonahi entzutean, haurtzaroko ilusioa berpizteko keinuak indarra hartzen du.

Eguberri Umama, Basque Christmas Songs diskoan gure artean ezagunak diren hainbat Gabon kanta biltzen dira: *Ator-ator*, *Oi Betleem*, *Orbelak airez-aire*, etab. Tartean badira beste herrialdeetako kantu zoragarriak ere, hala nola *Elurra mara-mara* (Serge Jaroff), *Noel-Noel* (Frantzia, XVI. mendea).

Juantxo Zeberio Etxetxipia (Tolosa, 1968) pianista eta konpositoreak, abesbatza eta jazz laukotea uztartuz sorturiko hirugarren diskoa da, eta aurreko lanetan bezala –*Umama!!* (2003) eta *Umama 2* (2007)—, oraingoan ere pianoa eta zuzendaritza musikala eraman eta abesbatza eta jazz laukoterakoko preseski egindako moldaketak beregain hartu ditu.

Proiektu honetarako aurreko lanetan kolaboratu zuten musikariengana jo du berriro ere. Eskarmen-tu handiko musikariak dira Hasier Oleaga (bateria), Mikel Andueza (saxoa) eta Gonzalo Tejada (kontrabaxua). Beste hainbat proiektutan elkarrekin lan egitea balio erantsia izan da, grabazio prozesua errazteaz gain musikari bakoitzak dakarrena aintzat hartzen baita.

Migel Zeberio anaia izan du alboan oraingoan ere, eta hirugarren disko honetan, aurreko edizioetan bezala, 2001ean sortutako Sustraien Ahotsa abesbatzaren zuzendaritza eraman du.

Eguberri Umaman hainbat abeslari eta musikarik hartu dute parte, besteak beste Elene Arandia, Ainara Ortega, Arantxa Irazusta, Jesus Mari Jauregi, Xabier Ormazabal, Xabier Zeberio, Iraide Ansorena eta Et incarnatus orkestra.

Zeberiotarrek, Martxoan zendu zen Iñaki Epelde lagun eta artista handiak egindako irudia aukeratu dute, beste behin ere, azken lanaren azala ilustratzeko.

Grabazioa urriaren amaieran egin zen Elkar estudioetan eta nahasketa eta ekoizpen lanetan Aurelio Martinez eta Victor Sanchez aritu ziren. Grabaketa hau egin eta CDa kaleratu ahal izateko, Juantxo Zeberio *crowdfunding* ekimena jarri zuen martxan. Helburua, jarraitzaile eta zale askoren babesa eta laguntzari esker, hau da, norbanakoen ekarpenen bidez, proiektua finantzatzeko modu zuzena lortzea

Eguberri Umama.
Basque Christmas Songs
Juantxo Zeberio
Etxetxipia
Elkar, 2013



IÑAKI EPELDE

zen. Ordainetan, proiektua sustatzen dutenei sariak eskaintzen zaizkie: produktu eskusiboak, esperientzia bakanak, argitalpen mugatuak, merchandisinga, deskargak, etab.

Anbizio handiko lana izan da, ausarta eta berri-tzailea. Musikaren errealitate desberdinak arakatzea izan da Juantxo Zeberioaren nahia, abesbatzaren eta jazz laukotearen arteko elkarriketa modu natural batean ematea. Horretarako, herrikoiak diren abestiak modu pertsonal batean eta egungo ikuspuntu-tik landu ditu, jazzaren hizkuntzan oinarritutako bat-bateko soinuak abesbatzetako partitura zehatze-kin bateratuz.

Zuzeneko emanaldiak honako egunetan eskaini-ko dituzte: abenduaren 13an, Tolosako Leidorren; abenduaren 15ean, Hondarribiko Itxas-etxean; eta urtarrilaren 2an Donostiako Antzoki Zaharrean.



Gabon giroan sartzeko. Senide edo lagun arteko epeltasunean zaudela goxo entzungo den diskoa. Asmatuko duzu. ■

Olatz Korta



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Jon Mirena Landa Zigor Zuzenbideko irakasleak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


		2	5		3	9	6	
8			1		6			
		6			4		2	
9				6	5		3	7
4		7		3		2		9
5	2		9	4				8
	3		6			5		
			4	2				3
	5	4	3		8	7		

Zaila

	8	5						3
				1		2	5	
			4	9				
3					7		6	2
		9				5		
5	6		3					1
				6	2			
	5	6		4				
2						4	1	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Doilor. 2.-Sasijainko. 3.-Gurdiaren ziri. 4.-Alez ale. 5.-Lo-egoeran.

Kike Amonarrizen umorea

Haurren ardura



Sopelako Cristinak igorri digu honako txiste hau:

— Barkatu, Miren... Txikiak nola du izena?

Senarrak emazteari deitu dio telefonoz bulegotik:

— Kaixo Miren! Gaur arratsaldean normalean baino lehenago aterako naiz lanetik eta ni neu joango naiz umeen bila... Hartu arratsaldea libre.

— A, ba... primeran!



Soluzioak

Erraza

7	4	2	8	9	5	1	2	6	3	7	4
8	9	5	1	2	6	3	7	4			
3	1	6	7	9	4	8	2	5			
9	8	1	2	6	5	4	3	7			
4	6	7	8	3	1	2	5	9			
5	2	3	9	4	7	6	1	8			
1	3	8	5	7	9	5	4	2			
6	7	9	4	3	2	1	8	5			
2	5	4	3	1	8	7	9	6			

Zaila

9	8	3	2	7	6	1	4	5			
6	7	4	8	1	3	2	5	9			
1	3	2	4	9	5	6	7	8			
3	4	1	9	5	7	8	6	2			
7	2	9	6	8	1	5	3	4			
5	6	8	3	2	4	7	9	1			
4	1	3	7	6	2	9	8	5			
8	5	6	1	4	9	3	2	7			
2	9	7	5	3	8	4	1	6			

Puzzlea:

“Zuzenbideak gizartearen jardun eremuak moldatu behar ditu, malluaren mehatxuez justizia ezartzea ez da onatzen. Ona izateko neurritz erabili behar da”.

5x5:

1. Zital. 2. Idolo. 3. Tolet. 4. Aleka. 5. Lotan.

URAK TTIKI DIRE, GILKITXARO ANTZERKI TALDEA

Negarra eta barrea saio berean

ANE ZABALAK eta Galder Perezek osatzen duten Gilkitxaro antzerki taldeak *Urak Ttiki dire* antzezlanak aurkeztu du berriki. Bilboko Pabellon 6 aretoan egin zuten estreinaldia, azaroaren 8an, eta harrera ona eskaini zion publikoak. Gaizka Sarasola aktore eta musikariak idatzia da *Urak Ttiki dire*, espresuki Gilkitxaro taldeak antzezteko. Ez da ohikoa, aurretik egindako lan guztiak, *Miranderen Kabareta* edo *8 Begi* kasurako, taldeko kideek berek idatzi baitituzte.

Samuel Beckett antzerkiegilearen *Godoten Esperoan* antzeztaneren kutsua nabaria du Gilkitxaroren lan berri honek. Bi pertsonaiak, Ilargi eta Willy, espazio ezezagun batean daude, suposatzea da basoan egin dutela topo, inoiz agertuko ez den balizko errege baten zain.

Drama, komedia eta absurdoaren uretan murgiltzen dira aktore biak, iraganaz, etorkizunaz, bade-naz eta ez denaz, borrokaz, maitasunaz, itxaropenaz zein amaieraz mintzatzeko, denbora geldirik dagoela.

Komedian aritu dira beti Ane eta Galder, eta bitxi egiten da beraiek teatro serioa egiten ikustea. Hala ere, emaitza ezin hobea da: tentsioa, drama eta komedia, dena barre artean, aktoreak muturretik muturrera doaz eta.

Abenduaren 14an Lesakan, eta abenduaren 27an Larrabetzuko



Urak ttiki dire
Gilkitxaro antzerki taldea.

Jokalariak: Galder Perez eta Ane Zabala. **Testua:** Gaizka Sarasola. **Estreinaldia:** Bilbon, Pabellon 6 aretoan, azaroaren 8an.

Hori Bai gaztetxean izango da Gilkitxaroren azken antzezlanak gozatzeko aukera.

Pabellon 6 aretoak eskainitako euskarazko emanaldia bikoitza izan zen. Bigarren saioan Oh! My God taldearen *Zer duzu Amy?* antzezlanak ikusi ahal izan genuen.

Leire Ucha aktorea bikain sartzen da Amy Winehouse larruan,

hori baita abesbatzako bigarren solistaren –Daisy izen artistikoz ezaguna– asmoa. Daisyk edozein gauza egingo luke Amyren ahotsa eta talentua bereganatzeko. Soul abeslariaren heriotzaren berri iza-tean, Londreseko Edgwareburyko kanposantura abiatuko da, Amyren ahots kordak eskuratzera.

Leire Uchak abesten eta dantzatzen du, eta bakarrikzeta komiko ederra eskaintzen. Aurretik egindako beste lan batzuetan bezala (*Lauraren abestia*, *Mamuak ala Soka Emakumea*), ondo egiten du lan bizkaitarrak. Daisy barregarri suertatzen da, baina baita maitagarri ere. ■

Myriam Garzia



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel.: 943681234
www.iriartejauregia.com



Euskal Herria ezagutuz
ZUIA (ARABA)

Harriak hitz egiten hasiko balira moduan...

Urtegia eraiki aurretik zer zegoen Uribarri-Ganboan? Zelakoak ziren duela 800 urte Zuiako Kuadrillako jauregi eta gazteluak? Eskualdeko historiara bisita gidatuen bidez hurreratzeko aukera dago Zuiako Kuadrillan. Zazpi ibilbide, zazpiak historia eta kondairaz beteak.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

GORBEIA MENDIAREN bi aldeetan badago non ibili eta zer ikusi. Iparraldean, Bizkaiko Arratia eta Nerbioi inguruetan, eta hegoaldean, Arabako Zuiako Kuadrillan, hamai-ka bisita gidatu prestatu dituzte, inguruko txokoak bisitatzerakoan euren gaineko historia apur bat gehiago ezagutzeko. Zuiako Kuadrillan geratuko gara gaurkoan. Urteko edozein garaitan egin daitezke bisitak, eta aukera benetan zabala da.

Herri bat bisitatzerakoan, edo zergatik ez, gure herrian bertan, badaude hainbat txoko berezi, leku horien historia imajinarazten digutenak. Uribarri-Ganboako urtegia horietako bat da. Ur hori guztia hara eroan aurretik, zelakoak izango ziren bertako parajeak? 1960ko hamarkadan eraiki zuten urtegia, eta udalerriko herri batzuk, base-riak eta lur-eremu handiak ur azpian gelditu ziren. Eraikuntza horren historia kontatzen dute Zuiako bisitaldi gidatuetako batean. Langara-Ganboa herrira ere joaten dira bisitan, eta urtegia sortu aurretik herria eta ingurua zelakoak ziren azaltzen dute.

Beste bisita bat gaztelu eta dorre-txeetako historian oinarrituta dago. Gopegi herrian hasten da, Goiko-leako dorre-jauregian, eta Manurga



ZUIAKO KUADRILLAK UTZIA

Artaldetxoa Aramaion.


eta Letona herriak ere bisitatzen ditu. Zutunik dauden jauregiak, desagertutako hainbat dorretxeren kondairak... Duela 800 urte baino gehiago bertan bizitakoa irudikatzen duen moduko ibilaldia da. Nafarroako Erresuma defendatzen zuen Zaitetik gazteluraino paseoa eginez amaitzen da bisita.

Ahoz ahoko kondaira eta fabula ugari kontatzen dira bisita gidatuetan. Izan ere, badago mitologia ardatz duen txango bat: Murgian, herriko kale eta txokoetan barrena,

inguru horiek betidanik izan dituzten elezaharrak kontatzen dituzte.

Herriguneetan barrena

Legution eta Ibarren ere bisitaldi gidatuak egin daitezke. Modu eder-rra iraganera jauzi egiteko. Legutio-ko herrigunea, esaterako, ia guztiz hondatu zuten 36ko Gerran, baina oraindik zutik daude herriko antzinako harresiaren zati batzuk. Eraiki zituztenetik hona gertatutako hainbat historia izango ditu entzungai hara hurreratzen denak.



Goiuriko ur-jauzi ikusgarria.

Legutiotik Aramaioko Ibarrara joango gara. Kondairaz betetako hirigunea da Ibarra. Diotenez, inguruko mendi eta basoen edertasuna ikusita, Alfontso XIII.a Espainiako erregeak “arabar Suitza” deitu zion Aramaiori. Udalaitz eta Anboto mendien hegoaldean, Anbotoko Mari edo Barajuengo Jauna protagonista dituen kondaira ugaritan murgildu gaitezke, eta ondoren bertako gaztandegi batera egingo dugu ibilaldia, artzainen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko.

Oroko santutegia eta beste hainbat altxor

Zuiako leku ezagunenetako bat Oroko santutegia da. Haitz baten gainean eraikitakoa, Erdi Arotik bizi izan da jendea han. Zuiako haranaren ikuspegi zabala eskaintzen du

guneak, eta bisita gidatu baten abiapuntua ere bada: santutegiaren nondik norakoak ezagutu eta gero, Erdi Aroko eliza erromaniko ederra duen Beluntza herrira bajatuko gara, eta handik Goiurira eta bertako ur-jauzia ikustera joango gara. Goiuri herria amildegi baten ertzean dagoia, eta alboan dauka ehun metroko ur-jauzia, sasoi honetako euriarekin emari bizia edukitzen duena. Goiuri bisitatu eta gero, garagardoa artisau erara zelan egiten duten ikusteko aukera egoten da bisitaldi honetan, Baias garagardotegian.

Antzinako ofizioak

Zuiako basoetako erreken indarra hainbat ofiziotarako aprobetxatu izan da, eta horiek ezagutzeko aukera ematen du bisita batek. Sarrian aukera dago errota zahar bat lanean

ikusteko. Karobi zahar bat ere ikusten da, eta Zuian urte askoko tradizioa daukan erlezaintzari buruzko azalpenekin amaitzen da bisita, Murgiako Eztiaren Museoan.

Murgia, Legutio, Ibarra... herrigune handiagoez gain herri txiki askok osotzen dute Zuiako kuadrilla. Ibilbide gidatu batek, berbarako, Zigoitiara eta bertako Erdi Aroko elizetara garamatza. XII. eta XIII. mendeetan bizigune txikiak parrokia-tenpluak eraikitzeke adina aberastasun lortu zuten, eta horren lekuko, Zigoitian ikus daitezkeenak.

Gorbeialde osoan

Gorbeia beste aldean ere hainbat bisita antolatu dituzte, esan bezala (informazio zabala aurkituko duzu www.gorbeiaeuskadi.com webgunean). Lau dira guztira: Arratia bailarako Arteaga, Areatza eta Zeanuri ezagutzeko aukera dago, baita Otxandio inguruak ere. Gutxienez lau laguneko taldea eskatzen dute, eta bi eta bost euro artean ordaindu behar da; prezio merkea, historia pasatzen ikusi duten harriak hizketan entzuteko. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune partehartzailea.

Areatza Otxandio
Orozko Gopegi
Gorostiza Goitia
Garagardoa Ibarra
Urkabustaiz Aramaia
Nerbioi Ohiturak
Gadakao Arratia
Zeanuri Ertzaionikoa
OTXANDIO Goiuri UBIDE
Letona
Olano Zigoitia
Urtegia Urbina
Etnografia Mitologia
Gazteluak
Murgia Zestafe
Historia Oleta
laureaiak Beluntza

bisita Gidatuak · visitas guiadas

Gorbeia

ERRESERBAK · RESERVAS · RESERVATION
945 243 828 · 645 844 087

www.gorbeiaeuskadi.com

Piloturik gabeko abioiak jarri nahi dituzte gure zeruan

AMAZON BANATZAILE ERRALDOIAK piloturik gabeko abioiak, droneak alegia, erabili nahi ditu hainbat material banatzeko.

Droneak ezagun egin dira gerra makina gisa, AEBek behin baino gehiagotan erabili baitituzte arerioak suntsitzeko. Hala ere, azken aldian droneen erabilpen ez-militarraren bidea gero eta zabalagoa da. Udaren amaieran AEBetan gertatu suteak ikuskatzeko droneak erabili ziren, baina baditugu

hurbilagoko beste adibide batzuk. Frantzian, adibidez, 2012an onartu zuten droneek hegari egitea baimentzen duen legea, eta harrezkeroztik kartografia lanetarako, nekazaritzarako, artelanak zaintzeko... erabiltzen ari dira.

Antza, Amazonen aurretik enpresa askok agertu du pilo-

turik gabeko abioienganako interesa, uste baitute banaketa-kostuen murrizketa handia ekar dezaketela kasu askotan. Baina oraingoz arazoak abantailak baino handiagoak dira: oso autonomia txikia dute, eta istripuen edo lapurreten aurrean nola jokatu ez dago garbi.

Badirudi AEBetan 2015ean onartuko dela droneek hegari egitea baimenduko duen legea, eta bitartean Frantzia bihurtuko da saiakuntza eremu. Baietz hamarkada hau amaitu aurretik lehen postari droneak geure artean izan! ■



ISON kometak iraun al du?



AZAROAREN AMAIERAN ISON kometa inoiz ez beazala hurbildu zen eguzkira. Lehen berrien arabera erabat desintegratu zen, baina azken aldian egindako behaketen ostean ez dago hain garbi hala gertatu zenik.

Izotzez eta harkaitzez osatutako kometa, eguzkira hurbildu ahala, 2.700°C-ko ten-

peraturari aurre egin behar izan zion, eta hainbat orduz segundoko hiru milioi tona material galduz joan zen. Hala ere, ez dago garbi iraun egingo duen edo beroak desegingo ote duen.

Hozten doan neurrian irauteko aukera gehiago izango du, baina orain hilabeteko dirdira ez du izango, hori ziur. ■



Koralen erresistentzia harrigarria

Azken hamarkadetan koral arre-zife ugari jasandako kalteak izan dira albiste. Berotegi efektuaren eraginez itsasoak azidotu eta koral asko hil dira; baina aurkakoa gero eta sarriago ari dira behatzen, hau da, gero eta gehiago dira aldaketa genetikoei esker itsasoaren azidotasanari aurre egiten dioten koralak.

ttiki.com/58082

(Frantsesez)

Hardware libre

Zenbaiten ustez, denok noizbait entzun dugun "software libre" terminoak frikiek erabiltzen dituzten sistema eragile eta bestelako programa batzuk besterik ez ditu izendatzen. Dakitenek badakite askoz gehiago dela, baina, entzun behintzat, guztiok entzun dugu zerbait horri buruz. Hardware libre, aldiz, ezezagunagoa da, baina gero eta gehiago zabaltzen ari da eta etorkizunean zeresan handia emango du.

ttiki.com/58083

(Euskaraz)

Argia eta materia nahasirik

AEBetako MIT Teknologi Institutuko ikerlari talde batek materia eta argia nahastea lortu du. Horrela, material berriak sortzeko bidea zabaltzen da. Lehen erabilera informazio transmisioaren sistemetan izan daiteke.

ttiki.com/58084

(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia

batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

A babua!

IRAULTZA inondik etortzez gero baratzetik etorriko da. Historiak hala dio, eta hiztoriak zer esanik ez. Kontzientzia eta jakiak behar ditu historiak, baita hitzak ere. Jatenik gabeko hitzik ez da. Loretik dator jatena, loreak emango duen fruituak daraman hazitik.

Eboluzioaren bidezidorretan landare gehienek haziaren ugaltza hautatu zuten. Ez denek. Garoek, adibidez, ez. Nork eza gutzen du garoaren lorea? Eta hazia? Garoek perretxikoen bide bera hartu zuten, esporak darabiltzate ugaltzeko. Loreetan eta fruituetan energiari alferrik galdu beharrik ez.

Askotu edo ugaritzeko fruituaren hautu zahar hari buelta eman dio batek baino gehiagok. Landareak, eboluzioaren zurrumbiloan, zer berritan bilakatu saiatu eta saiatu ari dira. Begi-laburren muturraren aurrean, egunero milaka aldaketa gauzatzen ari dira landareak, etengabe.

Zurrumbilo horretan erotzen denik ere bada. Landareek ere badakite: txorua baino hobea da eroa. Ero horietako batzuek urrats

harrigarria eman dute. Ugalketaren ikurra eta bitarteko nagusia den hazia abandonatu dute. Utzieste horren arrazoia ez ditut aditzen. Ea nork dakien, eta ez dakienak trabes egin: bitako bat: bere bilakaeran, landareak, hazia ez bestelako ugaltze sistemaren bat hobetsi du edo jendeak etxekotu duen neurrian, bezatuta, gure espezieak behar duen neurrian ugaltu eta zainduko duela pentsatu eta hazia baztertzeraino otzandu da.

Bi adibide: banana (*Musa acuminata*, *Musa balbisiana* edo bien hibrido den *Musa × paradisiaca*) eta pikua (*Ficus carica*). Ugalketa sistema endekatuta sortzen dituzte “fruituak”. Bananak ba al du hazirik? Eta pikua? Ez batek, eta ez besteak. Fruitu antzuak dira, eta “partenokarpikoak” deitzen zaie. Landare berriak sortzeko gaitasuna duten hazirik gabeak. “Alferrikakoak” diren fruituak. Bananon-



STEVE HOPSON-CC BY SA

Banana, hazirik gabeko fruitua.

doa ipurdiko altsumatik eta pikon-doa adarretik, erraz asko ugaltzen ditugu.

Fruituok jateko soilik balio dute. Gero eta horrelako igali gehiago ikusiko ditugu. Udarea, mahatsa, angurria... zerrenda hazten ari da. Hazia eragozpena da jateko orduan. Baina landareak bilakatzen ari dira eta alferrik ez dute energiari xahutuko: laster dira fruiturik ematen ez dutela. Gure muturraren aurrean. A babua! ■



Bat eta erdi

Frantziara begiratu. Frantziako basoari. Azken 60 urte hauetan, bi milioi hektarea baso landatu dira, koniferoak gehienak. Egun, 16,5 milioi hektarea baso dute. Hamabi milioi pribatuak dira. Numero izugarri horiek etorkizuneko ekonomiaren, ingurumenaren eta jendartearen aldeko dema adierazten dute. Areago, egungoa garatzeko bide ona. Basoaren eta zuraren inguruko ekonomiak enplegua ematen die, egun, 425.000 langileri. Automobilgintza zerutiar gurtuak 280.500 laguni besterik ez... Bat eta erdi aldiz gehiago basoak... ■



NOTNEB82-CC BY SA



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Kolore guztietako andregaiak

LONDRES, 1840KO OTSAILAREN 10A. Victoria erregina haren lehengusu Alberto Saxe-Coburg eta Gothako printzearekin ezkondu zen Saint James jauregiko kaperan. Soineko zuria jantzita, erreginak tradizio bat hautsi eta gaurdaino iraun duen beste bat sortu zuen.

Antzinako Erroman ere andregaiak tunika zuria soinean ezkondu ohi ziren, zuria Himeneo ezkontzaren eta ugalkortasunaren jainkoaren kolorea baitzen. Oinetakoak eta mantelina, aldiz, azafrai kolorekoak izaten ziren. Handik aurrera, ordea, andregaien soinekoen koloreak ez zuen sinbolismo erlijiosorik izango Europan; botere ekonomiko eta sozialaren seinale bihurtu zen. Erdi Aroan eta Berpizkundean, ezkongai aberatsenak oihala purpura, gorri edo urdin biziak aukeratu ohi zituzten jantziak egiteko, koloregai garesti horiek ordain zitzaketan bakarrak zirelako. Hala ere, baziren salbuespenak. 1406an, esaterako, Ingalaterrako Henrike VI.aren alaba Philipa zuriz ezkondu zen Erik Danimarkakoarekin.

Barrokoak ezkon soinekoen kolorea leundu zuen, pastel koloreak modan zeuden eta. Dena den, orduan ere izan zen araua hautsi zuen andregairik: 1660an Maria Teresa Austriakoak beltza aukeratu zuen Frantziako errege Luis XIV.arekin ezkontzeko. Baina, oro har, errege familetako ezkontzetan kolore distiratsuak nagusituz joan ziren. Katalina Errusiakoak zilar koloreko soinekoa aukeratu zuen, eta Ingalaterran ere Victoriaren aurrekoak zilarrez ezkondu ziren.

Hannover etxeko azken erreginaren moral hertsia kontuan hartuta, pentsa liteke garbitasunaren ikur gisa hautatu zuela zuria. Arrazoia, ordea, friboloagoa izan zen: bereziki gustuko zuen parpailazko oihala erabili nahi izan zuen soinekoan, eta parpaila zuria zenez, soinekoa kolore berekoa egitea erabaki zuen. Izan ere, zuria ez zen, artean, birjintasuna adierazteko kolore erabiliena. Ama Birjinaren kolorea urdina zen, eta, horregatik, soineko azpian bada ere, ezkontza egunean urdin koloreko zerbait eramateko ohitura gaurdaino iritsi da. 1854an Eliza Katolikoak Sortzez Garbiaren dogma onartu zuen, eta zuria garbitasunaren ikur bihurtu zen.



Victoria erreginaren ezkon soinekoa zuria zen, laranja koloreko lorez apaindua, zuri-beltzeko argazkian antzematen ez den arren.

Victoriak hamalau urte lehenago hautatu zuen soinekoaren kolorea eta, gainera, protestantea zen. Beraz, zuriz ezkontzeko tradizioa arrazoi mundutarragoi egotzi behar zaie; zehazki, jaio berria zen argazkigintzari. Batetik, ezkontzako argazki ofizialak lau haizetara zabaldu zirelarik, kontinente osoko andregai askok erregina imitatu nahi izan zuten; eta oihala zuria zilar kolorekoa baino merkeagoa zen. Bestetik, zuri-beltzeko lehen argazkietan kolore biziak ez ziren antzematen, eta zuria, aldiz, ederki nabarmentzen zen. ■



Arrastoak

Villa Adriana 3D-n berpiztuko dute



BERNIE FISHER, Indianako Unibertsitateko teknologia digitalean aditua, programa informatiko berritzailea garatzen ari da antzinako Erromako villa ederrenetakoa, Villa Adrianari, jatorrizko distira itzultzeko. Villa Adrianaren proiektu digitala iragan astean aurkeztu zuten Washingtonen,

baina eraikin multzoan ibilaldi birtuala egin ahal izateko hamabi eta hemezortzi hilabete bitartean falta dira oraindik. Bitartean, vwvl.clas.virginia.edu/villa/ webguneak bost urteko ikerketa lanen berri ematen du, Erroma ekialdean dagoen villa-ren arrastoen egungo egoera xehetasun osoz azaltzeko. ■

«Baionan auzapeza hautatzeko abertzaleak giltzarri izanen dira»

Lekorne, 1947. Baionako Institutu Unibertsitario Teknologikoan (IUT) ingeles irakasle izana. Borondatezko lana egiten du *Enbata* aldizkarian. Ipar Euskal Herriko politikaren behatzaile zolia eta iritzigile da. Frantziako Estatuaren deszentralizazio politikari buruzko bere ikusmoldea eman digu, baita datorren martxoko udal hauteskundeez aburu zenbait ere.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



HEZUR-MUINETAN darama politika Mixel Bidegain militante abertzale historikoak. Azaroaren 30ean, Maulen, Lurralde Elkargoaren alde, 3.500 herritar bildu zituen manifestazioa hizpide abiatu dugu solasaldia.

Ipar Euskal Herriaren instituzioaren eskaera ozen zabaldu da berriz ere. Oraingoan Mauleko karriketan.

Manifestazioak beharrezkoak baitira, bizi dugun ataka gainditzeko katarsi gisakoak. Mazelako asko hartu dugu. Gainera, hondar aldian, Baionako manifestazioak nola-halako dezepzioa utzi zuen, jende gutxi bildu zelako. Irudi zuen zerbait lortua genuela eta 5.000 jende bildu zen, abertzale bozkatzailerak 10.000-12.000 delarik. Hau da, abertzaleak

berak ez ziren mobilizatu. Horregatik beharrezkoa zen barnealdean egitea eta areago Zuberoan. Zuberoko hautetsi abantzu guztiak manifestatu ziren. Hori duela hamar urte pentsaezina zen Zuberoan.

Bi egun lehenago Jean-Marc Ayrault lehen ministroak Ipar Euskal Herria Polo gisa egituratzea proposatu zuen.



“Georges Labazeek eta beste sozialista askok, hemengo gehienak barne, ez dute nahi Euskal Herriak izate juridiko, politiko eta administratiboa ukan ditzan”.

niuté territorial printzipio delakoa—uki ezinezkoa da Frantziarentzat.

Eskualdea, departamendua, kantonamenduak. Frantziako egituraketa eta deszentralizazioaren politika ez da aise ulertzen. Kantonamenduak eta herri elkargoak berrantolatzen ari dira orain. Azal diezaguzu zertan diren horiek guztiak.

Egiari zor, normala da berrantolaketak egitea. Kantonamendu batzuetan 5.000 biztanle dira eta beste batzuetan 30.000; Hendaia-koan, adibidez. Kantonamendu horretan Kotte Ezenarro da kontseilaria, bakarra. Eta Bidaxunekoan ere bai, 5.000 biztanleekin, Jean-Jacques Lasserre. Frantziako historiaren “ondarea” dira horiek. Hiriak handitu dira, baina kanpaina, baserria, tipitu da jendetzari dagokionez. Beraz ordezkapen-desoreka hori orekatzeko zerbait egin behar da. Maleruski, kari horretara, izugarritzko nahas-mahas (*charchuterie* politikoa) muntatu dute. Esaterako, Biarnoko kantonamendu bat eta Euskal Herriko beste bat lotu nahi dute. Amikuzekoa eta Biarnokoa, gainera, ez dakigu zein den. Paueko Kontseilu Nagusiak erabaki behar zuen, Ministerioak onarturik, baina ez dute egin. Sei urte horretan aritu dira, eta urte bat luzatu dute afera, 2015era arte.

Paueko Kontseilu Nagusiaren jarrera zein da kantonamenduen berregituraketan?

Departamenduko kontseilari nagusiak, PSko Georges Labazeek, esan omen du Manuel Valls Barne ministroak agindu duela mugen berregituratze hori. Hemengo sozialistek erabakia goitik datorrela diote, baina, ziur naiz, Labazeek eta beste sozialista askok, hemengo gehienak barne, horren alde daude. Ez dute nahi Euskal Herriak berezko mugak eta izate juridiko, politiko eta administratiboa ukan ditzan. Hau da, Hego Euskal Herriko instituzioekin hainbat esparrutan hitzarmenak

egin litzakeen erakunde bat izatea. Akitania-Euskadi edo Pirinio Atlantikoak-Nafarroa-Aragoi egiturak bai, baina Euskal Herria izan gabe.

2014ko martxoan Herriko Etxeko bozak izanen dira. Herri hautetsiez gain, herri elkargoetako kontseilariak ere hautatuko dira. Herri elkargoen bidez, Lurralde Elkargoa eratzea irits zitekeela entzun da han-hemenka.

Batek daki. Zaila da jakitea. Demagun horrelako zerbait egiten dela. Kontua da zein eskumen izango lukeen elkargo horrek. Baluke agian lehendakari bat. Herri elkargoetan badago, denen arteko egitura bat era lezakete. Baina funtsean, Frantziako egituretan zinezko eskumena eskualdeek, departamenduek edo Lurralde Elkargo espezifikoek dituzte. Herri Elkargo bakarra eratzeak ere ez litzakite emanen Lurralde Elkargo berezi baten eskumenak, legeak ez baitu onartzen guk abertzaleok galdatzen ditugun eskumenak. Urrasñoa litzateke aitzina egiteko? Usaiako galdea.

Eredu asko, baina zehatzik batere ez.

Deszentralizazio politika Mitterranden garaian hasi zen, gero UMPko Jean-Pierre Raffarin Lehen ministroak segida eman zion II. aktaren bidez. Eskumen gehiago eman zuen eta antolatze eskatasun gehiago. Baina ez da usu erabili. Erregioaren egitura (Akitania eskualdea) erreferentzia nagusia izatea nahi dute. Irudiz, departamenduen eskumen batzuk nahi izan dituzte transferitu eskualdera eta beste batzuk herri elkargoetara. Saltsa-maltsa horretan ari dira, baina horretarako lege egitasmorik ez dute behin ere egin. Politikarien asmakizunak dira, nahikeriak. Une batez “horrela ezin dugu segitu pentsatu zuten”. Hainbeste kontseilu, kontseilari eta funtzionarioekin. Dossier bat lantzen da, eta herri kontseilutik, herri elkargotik, departamendutik eta eskualdetik pasa behar da. Egitura sinplifikatu nahi dutela diote, baina orainokoa ez dute egin.

Pays egitura delakoa desagertu da. Haren bidez baliatutako eskumenak nola eskuratuko dira orain?

Jean-Marc Ayrault Lehen ministroak

Frantziako Deszentralizazioaren III. aktaren edo ekimenaren harian heldu da proposamena. Baina, egituratze hori ez da batere deszentralizatzeko asmoz eginga, lurraldea berregituratzeko urrats nimiñoa da, ez da batere tokian tokiko egiturei botere gehiago emateko. Berrantolatze horren bidez bizpahiru metropoli sortu dituzte. Lyongo eskualdean, konparazione. Metropolia egiteko hiria eta departamendu zati bat elkartu dituzte, alta, ez dute departamendua deuseztatu, eginen zutela hainbestetan erranagatik ere. Deszentralizazioaren desmarxa gezur hutsa besterik ez da.

Euskal Herrian ere halako zerbait egin lezake Frantziako Gobernuak?

Euskal lurraldea lotu ote zezakeen gure metropolira —departamendua deuseztatuz— Lurralde Kolektibitatea sortzeko? Nork daki. Haien ustea hau da: “Euskal Herriaren lurralde egitura sortu nahi dute eta Espainiako Euskal Herriarekin lotu”. Ugarte bat bagina, Korsika edo Kaledonia Berria, aspaldi finkatua zen lurraldea. Euskal Herria estatu arazoa da, lurralde afera, lurraldearen jarraitutasuna —Conti-

Ipar Euskal Herria Polo egitura proposatu omen du horren kariatara. Hedabide zenbaitek hori ulertu dute. Polo deitzen ahal zaio? Egitura berri delako hori definitu gabe dago. Ayraultek ez du garbi adierazi, edo nik ez dut garbi ulertu. Polo hori herri elkargoen bidez osatua balego ere, zein eskumenekin? Ez dute behin ere garbi mintzatzen. Herri elkargoak desagertuko al dira? Herri elkargoek Sindikatu eredu egitura osa lezakete, *Syndicat mixte* delakoa-ren antzekoa. Bil ta Garbi da horren adibidea, hondakinak biltzen dituen egitura. Polo edo egitura berriak bi edo hiru eskumen izanen lituzke, ez gehiago, eta ez lioke Euskal Herriari ezagupen instituzionala bermatuko. Gure eskakizuna urrunago doa. Abertzaleok Lurralde Elkargoaren alde borrokan segitu behar dugu.

Martxoko Herriko Etxeko bozak hizpide. Nola ikusten dituzu abertzaleen aukerak? EH Bai izango al da abertzaleen batasun marka?

EAJ kenduta, gainerako guztiek –AB, Batasuna eta EA, bai alderdirik gabeko abertzaleak– osatutako zerrendak direnean EH Bai izanen da. Beste arazo bat da, zerrenda horiek irekiak direnean. Funtsean, ez da izango abertzalek soilik osatutako zerrendarik. Zerrenda abertzaleetan abertzaleak ez direnak ere izanen dira, baita zerrenda irekiak direlakoetan ere.

Baionan, abertzaleek Jean Claude Iriarte dute zerrendaburu. Ezkerrekoa bai, baina ez dute abertzale gisa aurkeztu. Zer espero duzu?

Jean Claude Iriartek zuzenduko

“Michel Veunac-en zerrendan sartzean Miarritzeko abertzaleek beren arima saldu dute nolabait”

duen taldea irekia da, badira abertzaleak ez direnak. Baina funtsean abertzalea da. 1983tik hala izan da. Ni orduan zerrendako bigarren lekuan izan nintzen, Claude Harlouxet buru zela. Bozen %4,94 egin genuen. Hautetsirik ez genuen ukan, %5 behar baitzen gainditu. Espero dut abertzaleek orain arteko %8tik goiti egitea, %10a ere erdies-tea. %10a egiten duzularik bigarren itzulian pisu handia duzu, giltzarria bilakatzen zara. Baionan auzapeza hautatzeko erabakigarriak izanen dira abertzaleak.

Jean Greneten ondorengoa nor den erabakiko da. Jean Rene Etchegaray zentrista eta axuantak UMPren sostengua dauka. Batera-ko kidea da. Beste aukera nagusiak PSko Henri Etcheto du zerrendaburu.

PSko Etchetoren profila antieuskaduna da, Lurralde Elkargoaren aurkakoa. Etchegarai deszentralizazio erreformarako ministro Marylise Lebranchu Angelura etorri zen eguneko protestan egon zen, bizkarra emanez. Baionako auzapeza izan nahi duen Baterako kidea da. Labrantza Ganbara urrik defendatu duen abokatuak bere lerroa fermuki atxiki du. Naski, boza emateko unean abertzale bakoitzak ikusiko du. Zer aterako den horretatik?

Miarritzen Didier Borotra auzapeza-ren ondorengoa hautatuko da. Biarritz Elkartu eta Biarritz Bestelakoa talde abertzaleak Michel Veunac (UDI) zentristarekin aurkeztuko dira.

Akatsa iruditzen zait abertzaleek beren taldea ez osatzea lehen itzulian. Jakes Abeberrik bozen %14a eskuratu zuen orain hogeitau urte, orduan miraria zirudien. Abertzaleek urteetan eraman zuten lanaren uza. Borotrarekin hitzartu zuten udal politika. Orain, Borotra doa eta abertzaleek ez dute taldea osatu, baina behar zuten egin, Brissonek Veunac garaile izanda, zerbait negoziatzeko bigarren itzulian. Abertzaleen arteko zatiketa izan da iraganean. Abeberri ere badoa eta ez da zerrenda osatzeko ahalmenik izan. Horretarako pertsonalitate politiko bat eta lan franko egin behar baita. Hots, militantismoa lana da, eta egitea gero eta nekezagoa da egun. Miarritzen abertzaleek beren arima saldu dute nolabait, beste zerrenda batean sartzean.

Nola ikusten duzu Michel Veunac zentristaren eta UMPko Max Brissonen arteko lehia?

Veunac gizon irekia da. Baina zer eskainiko die abertzaleei? Brissonek UMP du giblean. Lurralde Kolektibitatearen aldekoa da. Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) lehendakaria izan da luzaz. Azken hamar urteetan Euskal Herria ezagutu du. Euskaldunekin aritu da lanean. Max Brissonek garaile bada, zer leku izanen dute abertzaleek Herriko Etxean? ■



The advertisement shows three books from the Elkar publishing house, each with a circular portrait of the author next to it. The books are:

- Txartel bat (des)herra** by Garazi Goia. The cover features a cityscape.
- VERSUS** by Karlos Linazasoro. The cover features a drawing of a person's head.
- Goiatz Labandibar** by Goiatz Labandibar. The cover features a drawing of a person's head.

At the bottom of the advertisement, the Elkar logo is on the left, the website www.elkarargitaletxea.com is in the center, and the text "bizi literatura" is on the right.

Txapelketa aitzakia euskal kulturara hurbiltzeko

Bertsozale Elkartek Bertsolari Txapelketa Nagusia baliatu du beste behin euskaltegieta ikasleak bertsolaritzara gerturatzeko. Saio didaktikoak antolatu dituzte, bai euskaltegietan, baita ikastetxeetako gazteentzat ere.

| EIDER MADINA BERASATEGI |



XDZ

Ruben Sanchez bertsolaria Oiongo euskaltegian Txapelketari buruzko saio didaktikoa gidatzen.

JENDARTEAREN ZATI HANDIA harra-patu duen olatua, euskararen murgiltzeko pausoa eman dutenengana zabaltzeko xedea du egitasmoak. Euskaldunberriek, bertsolaritzaren bidez, euskal komunitatean norbere txokoa aurki dezaketela frogatu nahi dute.

Ikastaroan, ahoz inprobisatzeko artearen inguruko xehetasunak lantzen dituzte; saioen egitura eta erri-tualak; ariketa bakoitzaren berezitasunak; ulermen estrategiak; bertsolariak nor diren eta abar. Horrez gain, Txapelketaren tradizio luzea, eta gainerako plazen artean betetzen duen leku garrantzitsua erakusten da.

Hainbat bertsolari aritu dira Euskal Herri luze zabalean euskaltegi eta hizkuntza eskoletan saio didak-

tikoak eskaintzen. Euskalduntze mugimenduarekin harremana duten edo izan duten bertsolariak dira, oro har. Bertsolaritza, euskara ikasteko, lantzeko eta hobetzeko tresna dela ezagutarazi nahi dute.

Miranda de Ebrotik Maulera, 1.200 ikasle eta 29 euskaltegi

Bertsozale Elkarteen proiektuak 42 saio didaktiko eskaini ditu. Antolatzaileei garrantzitsua iruditu zaie bertsolaritza lantzeko saioak gune ez hain euskaldunetan egitea. Horregatik perimetroa zabaltzeko saiakera berezia egin da aurtan.

Egitasmoaren bultzatzaileek uste dute euskara ikasi nahi duen orok norbere bizitzan euskararentzako gune bat bilatzeari ezinbestekoa duela. Zonalde erdaldunetan euska-

raz ikasi eta bizi nahi dutenek arnasmak behar dituzte eta bertsolaritzak gune euskaldun hori eskaini dezakeela erakutsi nahi dute.

Arabako esperientzia arrakastatsua

Arabako 400 ikasle hurbildu dira Miranda de Ebron, Gasteizen, Murgian eta Oionen egindako hogeita ikastaroetara. Ruben Sanchez Bakaikoa bertsolariak hainbat saio didaktiko eman ditu. Hark dio Arabako tradizio luzea izan duela euskaldunberriak eta ikastoletan euskaraz alfabetatu direnak bertso eskoletan aritzeak. "Gipuzkoan Jon Maia eta Bizkaian Payatarrak salbuespen diren bezala, gure herrialdean errealtatea izan da", ohartarazi du.

Duela 30 urte, bertso transmisioa galdua zegoen Araban, baita eremu euskaldunetan ere. Duela hiru hamarkada sortutako bertso eskolei esker berpiztu da bertsolaritza. Lehenengo eskolak Gasteiz eta Lau-diokoak izan ziren eta partaide guz-tiak euskaldunberriak ziren. Ezin-bestekotzat jotzen du euskarak bere gain euskal kultura badaramala ohar-taraztea: “Ezin da kultura hizkuntza-tik erauzi”. Bertsolaritza, kultur adie-ra gisa, euskalduntzea bideratzeko tresna izan daitekeela uste du araba-rrak. Bere hitzetan, “euskara aisial-diarekin lotzeko aukera bikaina eskaintzen du. Modu formalean ikasitakoa praktikan jarri eta eduki akademikoei buelta emateko bidea izan daiteke. Arauak hautsiz hiz-kuntzarekin jolasteko abagunea irekitzen du, euskararekin ongi pasatzeko modua, alegia”.

Saio didaktikoetan hainbat dinamika lantzen dituzte. Sanchez-ek esaterako, hastapeneko jardue-ran egoera bat planteatzen die: Gas-teizko festetara kanpoko lagun bat etorri zaie bisitan eta trago bat har-tzen ari direla bertso saioa hasi da. Lagunari bertsolaritza zer den azal-du behar diote.

Horrela, ikaskide guztien artean bertsoen inguruko informazio anitz biltzen dute. Horrekin bertsolari-tzaz uste dutena baino gehiago dakitela ohartzen dira.

Barakaldoko BEC aretoko fina-leko irudiak ikusita ikasle guztiak harrিতa gelditzen direla kontatu du Sanchezek. “Ez dute uste bertsoek hainbesteko arrakasta dutenik, ez dakite Txapelketaren amaierako saioak halako aretoa betetzeko gai-

tasuna duenik. Euskararen mundu txikian bertsolaritza gauza handia dela jabetzen dira Barakaldoko iru-diak ikusita”.

4. edo 5. saio didaktikoan bertso-ak idazten jartzen ditu ikasleak eta batzuk oso maila altua dutela azpi-marratu du. “Hizkuntza gehiago menperatuko balute bertsolari askoren pare egongo lirarteke. Bide horretatik jarraitzen badute nork daki etorkizunean baten bat ohol-tza gainean ikusiko dugun”, azaldu du bertsolariak.

“Euskararen mundu txikian bertsolaritza gauza handia dela jabetzen dira ikasleak Barakaldoko irudiak ikusita”

Ruben Sanchez Bakaikoa,
irakaslea

Ikastetxeetan 20.000 ikasle

Euskal Herriko herrialde guztietan, eskola orduetan, aritzen dira bertsolaritza jorratzen. Azken hilabe-teetan ordea, bertso irakasleak ikas-leak lagun, Bertsolari Txapelketaren jarraipena egiten ari dira.


Estitxu Arozena Albizu lesaka-rrak eskolak ematen ditu Nafarroa-ko Lesaka, Bera eta Doneztebeko hainbat ikastetxetan. Bertsolariak azaldu duenez, haurrek umetatik bertsolaritzarekin kontaktua izatea eta horren berri edukitzea garran-tzitsua da. Familian edo inguruan bertsolaritza afiziorik ez badago zaila baita umeak bertso mundura gerturatzea. “Ikastaro hauek eman-da ohartzen naiz hainbat ume

oinarrizko ezagutzarik ere ez dutela. Futbolari izarren izenak primeran dakizkiten bezala, askok ez dakite Maialen Lujanbio edo Andoni Egaña nor diren”.

Haurren interesa pizteko teknika ugari erabiltzen ditu. Txapelketaren harira, adibidez, porra berezia anto-latu du, finalera zein bertsolari iri-tsiko diren asma zezaten haurrek. Asteburueto saioak landu dituzte klasean, eta puntuazioak nola joan diren komentatzen ibili dira. Final handiari begira podiumerako porra egingen dutela dio Arozenak. Ari-keta horri esker zenbait haur eta guraso Txapelketaren jarraipena egitera animatu dira.

Bestalde, bat-bateko ariketak lan-tzea gustatzen zaio, eta jolas moduan bat-batean puntua eran-tzuten aritzen dira sarri. Noiz-behinka saioen zatiak ere ikusten dituzte, eta horretarako haurren-tzako moduko gai egokiak lan-tzen dituzten bertsoak hautatzen ditu. Fredi Paya eta Iker Zubeldiak Amasa-Villabonako saioan bota zutena jarri du adibide. Gai jartzai-leek bi ume sahararren paperean jarri zituzten bi bertsolariak eta umeentzako gertuko gaia, hizkun-tza eta mundua irudikatu zuten haien inprobisazio lanetan.

Gainera, “aurten finalaurreko saioak zuzenean telebistan emateak ekarri du, edonork, momenturen batean edo bestean, bertsolaritzari tarte txiki bat eskaintzea. Umeengan nabaritzen da; lehen bertso edukiak bilatu egin behar ziren bezala, orain etxeko egongele-tara sartu dira”. ■



Talde bakarra Ipar Euskal Herrian?

Top14an elkar helduta lehiatzerik izango luketen aztertzen ari dira Biarritz eta Baiona.

| JON TORNER ZABALA |

“BIARRITZ OLYMPIQUE eta Baiona errugbi klubetako presidentek, eta haien babesle nagusiek (Capgemini, Alain Afflelou), euskal izaeradun talde bakarra osatzeko aukerak aztertuko dituzte. Aurrera begirako elkarrizketa eta analisiak emango dizkigute balizko proiektuaren bideragarritasunari buruzko argibideak”.

Bi taldeek plazaratutako prentsa-oharrak errugbi mundua astindu du —elkar gehiegi maitatzen ez duten taldeak dira Biarritz eta Baiona—, baina badira arrazoiak bateratzearen berri orain emateko, Laurent Zègre kazetariak *Sud Ouest* agerkarian azaldu duen moduan:

Izaera administratibo berria

“Fusio” terminoa ekidin duten ordezkarien hitzetan, bi klubek lau hilabeteko epea dute egitasmoaren bideragarritasunari buruzko auditoria egin eta datorren denboraldian Top14an elkar helduta lehiatzerik izango luketen jakiteko. Ondoren erabakiko dute proiektuari zein izaera administratibo eman, bi klubek



Biarritz (zuri-gorritz) eta Baionaren (zuri-urdinez) arteko derbirik ez al da izango aurrerantzean?

historia aintzat hartuta. Bakoitzaren identitate berezia medio, ezinezkoa dirudi talde batek bestea xurgatzea. Ziurrenik hirugarren elkarte bat sortuko dute.

Zergatik orain?

Top14 ligaren sailkapenari begiratzea besterik ez dagoela dio kazetariak. Hamabigarrena da Baiona, eta azkena Biarritz. Liga gogorra da Frantziakoa, aurrekontu handia eskatzen

duena, eta jaitsieraren amildegian behera ez jausteko, Baionak eta Biarritzek ezinbestekoa dute haien diru-poltsak handitzea.

Aurrekontuen sailkapenean, zortzigarrena da Baiona (18 milioi euro), eta hamargarrena Biarritz (ia 17 milioi euro). “1+1 ez dira beti 2, baina errazago lortuko dugu elkar helduta”, adierazi du Alain Afflelou enpresariak.

Zein izen izango du? Zein kolore? Non jokatu du?

Galdera horiek airean daude oraindik. Datozen hilabeteetako elkarrizketek esango dute bi taldeak adostasun

batera helduko diren ala ez; eta klubetako agintari, babeste eta zaleak kezkatzen dituzten kontuen inguruko erabakiak zeintzuk aseko dituzten, eta zeintzuk haserrarazi. Gaur gaurkoz, *Sud Ouest*-en galderari (“Fusioaren alde al zaude?”) erantzun dioten internauten %58ak baietz esan du, eta %33ak ezetz (%9ak ez dakiela erantzun du). ■



Gora bertsolari ausartiak!

· JAN EDAN ENTZUN IKUSI ETA IKASI ·

Donostia - alde zaharra


www.afuegonegro.com

GIZARTE BAZTERKETA

114.000 lagun gehiago pobrezian

Gaindegiaren arabera, neurgailu guztiek erakusten dute Euskal Herrian pobrezia gora egin duela.

| EIDER MADINA BERASATEGI |



GAINDEGIAK *Pobrezia eta bazterketa Euskal Herrian* txostena kaleratu du. Bertan biltzen denez 2009tik hona, Euskal Herrian gutxienez 114.576 pertsona gehiago daude pobrezia egoeran.

Bi Estatuen arteko muga hartuta, Ipar Euskal Herrian pobrezia proportzioa altuagoa da, baina estatuak politika publikoen bitartez orekatzen du. Hego Euskal Herrian berriz, pobrezia bilakaera negati-

boa izateaz gain, oso azkar gertatzen ari da.

Eurostat-en datuen arabera, 2012an Euskal Herrian 520.416 pertsona zeuden pobrezia edo baztertze arriskuan, biztanleria osoaren %16,6. Batik bat EAEn eman da igoera hori. Horretaz gain, 2012an 317.199 pertsonak ordu oso gutxiko enplegua zuten. 2009. urtetik ia bikoiztu egin da egoera horretan dagoen biztanle kopurua.

Pobrezia Europako mapa

Europar Batasunaren neurgailuekin Gaindegiak mapa esanguratsua egin du. Bertan irudikatzen da Euskal Herria Europa mailan postu baxuan dagoela pobrezia dagokionean (%16,6). Dena den, ikerketen emaitzetan adostasunik ez dagoenez, pobrezia maila biztanleriaren %15 eta %30 artean kokatzen du Gaindegiak ■



Kalean da abenduko



aizu!

- Berragu, etxetz etxeko liburutegia
- Herriko produktuak Ipar Euskal Herrian
- Durango, Azoka Hiria
- Maite Larburu arin-arin
- Artisauekin berbetan

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org

SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ESTITXU PINATXO
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU
HARKAITZ CANO AMETS ARZALLUS

Gonbidatu berezia:

DULCE PONTES



ABENDUAK 22 DONOSTIA
KURSAAL-19:00etan

Laguntzaileak:

aniza
Kultura Gaitia

argia

Salmenta:
Victoria Eugenia Antzokia
www.kutxasarrerak.net



Euskaltzaindiko Gramatika batzordearen eta Ibon Sarasolaren dimisioak

WWW.IREKIA.EUSKADI.NET



Eskuinetik ezkerrera Pello Salaburu eta Ibon Sarasola, Urkullu eta Goirizelaiarekin.

EGUN ESANGURATSUA aukeratu zuen Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak albiste iluna emateko, Euskararen Nazioarteko Eguna alegia, abenduaren 3a. Pello Salaburu zen batzorde horren arduradun eta haren esanetan erakundearen barruan kudeaketa ereduarekin ados jartzen ez diren egituratu gabeko bi talde daude. Hedabideei esan dienez, “batzuek gauzak era batean

egin nahi dituzte, eta beste batzuek beste era batean. Dena den guk ez dugu gehiengoaren iritzia onartzeko arazorik. Beti ere errespetutik egiten bada. Ez dugu duintasuna galdu nahi”. Gramatika batzordeak zazpi liburuko gramatika proiektua aurkeztu berri du eta Euskaltzaindiak hiru liburuko lana nahiago zuen. Zurrumurruek diote botere lehia dagoela Euskaltzaindiaren barruan eta Salaburuk adierazi du gatazka akademikoa dela. Pello Salaburu buru zuen lantalde osoak dimititu du. Ondokoak dira: Pello Salaburu, Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Piarres Xarriton, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Céline Mounole, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal eta Paskual Rekalde.

Dimisioaren berri jakinda, Ibon Sarasolak Hiztegi Batuaren ardura utzi du. Haren ustez, Gramatika batzordearen dimisioa berak Hiztegi Batuaren ardura uzteko azken tanta izan da. *Berriari* esandakoaren arabera, Euskaltzaindiaren batzuek akademiaren zeregin arau-emalea lehenesten dute eta beste batzuek euskaltzaleen elkarte bihurtu nahi dute.

Euskaltzaindia abenduaren 20an arituko da Gramatika batzordearen eta Sarasolaren dimisioaz.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Biolentzia ekonomikoak

EUSKAL HERRIAN kale borroka ekintza bat dagoen bakoitzean, horrek sor dezakeen biolentzia politikoa berehalakoan eta irmo kondanatzen dute politikari, gobernu eta euren terminal mediatikoek. Gertatu bezain laster, denak lehiatzen dira ea zeinek irmoago eta gogorrago salatzen edo kondanatzen duen. Halako biolentziak baino ez baleude moduan. Politikari, gobernu eta terminal mediatiko horiek berek ahazten dute —edo ezkututzen dute— beste mota bateko biolentzia ekonomiko, sozial eta laborala jasaten duela biztanleriaren zati handi batek.

Isildu egiten dira kapitalismoaren aurrean, zeina etorkizunean miseria eta pobrezia baizik izango ez duten milaka gazteei eragiten dien langabeziaren erantzule den. Isiltzen dira milaka herritarrek kobratzen duten pentsio txatxuak (350-400 euro hilean) ikusita. Eta lan istripuekin ere mutu geratzen dira, urtero Euskal Herrian ehun langile baino gehiago hiltzen diren arren. Ez dute ezer esaten amiantoaren erabilerak sortutako egoe-

ra larriaz; aurten 14 heriotza eragin ditu eta 2008tik 120 dira haren ondorioz hil direnak. Enpresen eta multinazionalen deslokalizazioak chunka langile kalean utzi ditu, baina isilik segitzen dute. Iruzurgile fiskal handiei txintik ez diete esaten, eta jakina, paradisu fiskalak ezabatzeko ez dute ezer egiten. Ez diegu ezertxo ere entzun bankuek kredituaren iturria itxita dutela salatzeko; alderantziz, gure poltsikoetako dirua erabili dute banku horiek salbatzeko. Etxegabetzeen aurrean isilik daude, suizidioak eragiten dituela jakinda ere. Eta langileen kontrako lege antisozialak bedainkatzen dituzte.

Ordua da halako hipokresia politikoa albo batera utzi eta biolentzia horien guztien kontragor eta berehalakoan ekiteko, baita haien atzean dagoen sistema kapitalistaren kontra ekiteko ere, jendartearen zati handi bat larri baitago.

Juan Mari
Arregi



Eraikuntzarako materiala

GALPARSORO

Salmenta:

axulejo eta gresa
komunak • manparak • komuneko altzariak
obra hondakinen bilketa

☎ 943 300 145
Faxa: 943 300 012

Borda Berri industrialdea, 5. pab.
Andoain (Gipuzkoa)

AEB eta Europako lobbyak labekatzten ari diren TAFTA

Ofizialki den arren *Transatlantic Trade and Investment Partnership* (TTIP), ezagunagoa da ekarriko duen fruituaren izenez: *Transatlantic Free Trade Area* (TAFTA), Atlantikoaren gaineko Merkatu Librearen Gunea. Herritarrok burua ilargian daukagun bitartean, denon bizimodua errotik aldatuko digun aldaketa ari dira egosten ezkutuka.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

IKUSI INGELESEZKO WIKIPEDIAK nola laburbiltzen duen: “1990eko hamarkadan aipatu zen lehenbizikoz eta 2007an berriro. 2013an Enpleguaz eta Hazkundeaz AEBen eta Europar Batasunaren arteko Goi Mailako Lan Batzordeak gomendatu zuten ekitea Atlantikoan zeharreko Merkataritza eta Inbertsio Bazkidetzaren negoziaketei.

Izan daiteke historian zehar antolatu den merkatu libreko gunerik zabalena, munduaren Barne Produktu Gordinaren %46 bere baitan hartuz (...). Ituna osorik abian jarriko balitz, Europako Batzordeak kalkulatu du 2015erako ekarriko duela 400.000 lanpostu berriren sorrera, familia bakoitzarentzako urteko 545 euroko aberastasun gehitua, Europarentzako 160.000 dolarreko irabaziak eta AEBentzako 128.000 milioioak. Hala ere, beste batzuek eztabaidatu egiten dituzte argudio horiek eta kritikatzten itunaren inguruko negoziaketa sekretuak eta *copyright* klau-sulak”.

Ez da mirari goizeko kafea hartuz Athleticen edo Osasunaren azken balentriak oihukatzen diren estatuetan TAFTA inork ez aipatzeta. Baina EAErentzako estatus aldatetaz edo erabakitze eskubideaz kezkatzen den herritarrek ere,

kronika honen egilea barne, TAF-TAz ezer ez jakitea bai da nabarmena. Ez ordea kasualitatea.

AEBak ahalegin handiz ari dira negoziatzten bi merkataritza itun, bata Europar Batasunarekin eta bestea Itsas Bareko 11 herrialderekin, eta aurrerazaleak borrokarako antolatzen ari dira. Baina hain kaltegarriak ote dira itunok?

Europako Batzordeak negozio erakargarri bat marrazten du “*Partenariat transatlantique de commerce et d'investissement* (TTIP): *Le plus important accord commercial au monde*” aurkezpenean: AEBen eta Europar Batasunaren arteko salerosketak ugaritzeko dauden hesiak ezabatu nahi ditu, aduanako tasak gutxitu, batean eta bestean dauden arautegi ezberdinak bateratu, esate baterako bateko eta besteko homologazio prozedurak berdindu, honek enpresei kosteak gutxitzea ekarriko dielarik. Zerbitzuen atalera ere zabalduko omen da merkatuen liberalizazio erraldoi hau, baita inbertsio eta zerbitzu publikoetara ere, azkenean mundu osorako balioko duten arau berriak eraikiz.

Hain kaltegarria ote da hori? *The Ecologist* aldizkarian Ben Whitfordek (“*Secret trade deals attack global health and environment*”) erantzun du: “Hitzarmenok baimenduko diete konpainia handiei herrialde bako-

“*Stop TAFTA*” goiburuz Parisen azaroaren 24an burutu zen elkarretaratzearen irudi bat. Les Engraineurs (*engraineur* frantses argotean da besteren aferetan muturra sartzen duena, zirikatzailea ere bai) kolektiboak Saint Michel plazan hiru zienta jende bildu zituen AEB eta Europako eliteak antolatzen ari diren merkataritza libreko itunaren kontra ohartarazteko herritarrek. Susan George ekintzaile altermundialista ezaguna mintzatu zitzairen, besteren artean. Salatu zuen korporazio multinazionalak pagatutako lobbyak, ehunka bulego eta milaka abokatu eta aditu diruz ongi hornitu eta herritarrei osasunaz, ongizateaz, ingurumenaz eta ekonomiaz oraindik dauzkaten azken kontrol mekanismoak ostu nahian ari direla konspiratzen, TAFTA hori sekretuan erditzeko. Datozen hilabeteetan herritarrek izango dute aukera Euskal Herrian ere ordezkartzak eta agenteak dauzkaten lobby horiez gehiago jakiteko.

tzeko legeek ezarritako edozein mugari izkin egitea”. Baina zein neurritaraino? “Ezin da jakin: negoziaketak sekretupean egin dituzte eta korporazio handien interesak defenditzen dituzten lobbyak negoziaketen muinean ari diren bezala, tratua kontra egon zitezkeen informazioa ukatu egin zaie”.

Korporazioen diktadura

Hona *The Ecologist*ek iragartzen diguna TAFTA berriarekin. *Fracking* gasaren ustiaketa denetan zabalduko da, Europako moratoria pikutara joateak eta AEBetako gasaren esportazioak bultzata. Europako merkatuak produktu transgenikoz beteko dira, hormonaz hazitako zekor eta txerrikiz, kloroz esterilizatutako oilaskoz. AEBetatik laborantzako produktu merkeen uholde berria dator Europara. European kontsumitzaileen babeserako dauden arauak lasaituko dira korporazioen mesedetan. Europako agintariek produktu kimikoen gain daukaten kontrola galduko dute. Europako energia berriztagarrien planak are gehiago ahulduko dira.

“Berriro katastrofekeriatan!”, kexatu liteke irakurlea. Ez tamalez. *The Guardian* egunkarian George Monbiotek (“*The lies behind this transatlantic trade deal*”) azalerratu du negoziaketok ezkutuka darabilten arris-



kua. “[Negoziaiketa] batzordeak indar egiten du TTIP itunak barruan eraman dezan ‘*investor-state dispute settlement*’ mekanismo pozoi-tsua. Tresna honek, sartu duten aurreko itun guztietan, indarra eman die multinazionalai auzitara eramateko gobernua bitartekari talde sekretuen aurrera; alegia, leku-ko auzitegien eta parlamentuen erabakiak zangoean erabiltzen dituzten eta korporazioen abokatuz osatutako batzordeen aurrera”.

Horixe dela posible. Alemaniak erabaki duenetik pixkanaka itzaliz joatea bere zentral nuklearrak, Suediako Vattenfall konpainiak 3.500 milioi euroko kalte-ordainak eskatu dizkio. Quebec *fracking* gasaren ustiaketari moratoria ezarri dio-

nean, AEBetako konpainia batek 250 milioi dolarreko ordainketak eskatzen dizkio. Australiako gobernuak erabaki zuenean, legebiltzarrean luzaz eztabaidatu ostean, zigaretak markarik gabeko pake-tetan eta soilik osasunarentzako arriskuen aipamenez apaindurik sal-tzea, Philip Morris konpainiak Australia auzitara eraman zuen Hong Kongekin zeukan merkataritza itun bat aitzakiatzat erabiliz.

Mendebalde aberatseko herritarrei deigarri suertatzen zaizkigu kasuok, gure gizarteekin parekatzeko moduko estatuei gertatu zaielako. Baina aurretik mundu osoak nozitu ditu estrategia honen kalteak. Argentinako gobernuak bere krisi larriaren ostean erabaki zu-

nean blokatzea energiaren eta uraren prezioak, zerbitzuok berengana-
natuak zeuzkaten multinazionalak
kalte-ordain handiak kobratu ziz-
kioten. Berrikiago, El Salvadorren
herritarrek lortu zutenean aginta-
riak konbentzitzea urre meategi
erraldoi bat irekitzeko proiektua
geldiarazi dezaten, asmoaren atzean
dagoen Kanadako konpainiak auzi-
tara eraman du gobernua 315 milioi
pagatu diezazkion etorkizunean
lortu behar zituen etekinen kontura.

Baina negozio erraldoioen gakoa auzitara eramate horretan datza. “Korporazioek –zehaztu du Monbiotek– beren erreklamazioak egiten dituzte inbertsiogileen eta estatuen arteko eztabaidetarako [TAFTA bezalako] itunek ezarritako dauzkaten batzordean. Batzorde edo panelotan ez dago gure auzitegietan dauzkagun bermeetatik batera. Auziak sekretupean egiten dira. Epailak negozioetako abokatuak dira, horietako asko antzeko auzietan sartuta dauden korporazioen soldata kobratzen dutenak. Lekuko biztanleek ez dute hitzik erabakietan. Ez dago apelazio eskubiderik. Eta lekuko auzitegien nahiz parlamentu guztien gaitetik daude”.

XXI. mendeko eztabaida nagusienetako bat ernetzen hasi baizik ez da egin European: lurraren, uraren, kapitalaren, haizearen eta oro har ondasun guztien jabe egin ondoren, ea korporazioak gai izango diren aginte judiziala eta politikoa ere pribatizatzeke, herritarrei azken burujabetza izpiak ebatsirik. TAFTAekin, opila oso-osorik aberastentzat? ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com





Mikroakordioak

AUTOGOBERNUARI buruzko hitzarmen berria bilatuko zuela agindu zuen EAJk bere azken hauteskunde kanpainan. Eta horretan ari da orain, Eusko Legebiltzarrean autogobernuari buruzko Lan Taldea sortzeko alde aurreko elkarrizketetan. Eratuta beharko zukeen dagoeneko, baina atzeratuta doa eta badirudi 2014ko otsailen-edo finkatua egon daitekeela.

Behin hau sortuta, Juan Jose Ibarretxek bultzatu zuen Estatutu Berria agertuko da abiapuntu gisa, jeltzaleek argi iragarri dutenez, eduki zoro gisa baliagarria, baina ez prozedura gisa. Hau da, teoriak balio du, baina ez kontsulta bidez gauzatzeko eta are gutxiago Estatuari desafio eginez. Oraingo bidearen oinarriak Josu Jon Imazzen garaian finkatu ziren: “Ez inposatu, ez eragotzi”.

Ibarretxe Planaren porrotak jeltzaleen artean sortutako etsipen eta hutsuneari aurre egiteko, EAJren “arima pragmatikoenak” ehundutako formulazio berria zen. Estiloari dagokionez, orduko sasoi hartan, Espainian eroso egoitea zen helburua eta horretarako euskal herritarrok Espainia “seduzitu” behar genuen. Edukiaren oinarria honakoa zen: Espainia eta EA Eren arteko alde bikotasuna edo bilateralitatea, hau da, inork ezin duela bere kabuz erabaki, ez eragotzi.

Txema Monteroren 2007ko artikulu batek ere eman ditzake hainbat pista, Ibarretxeren kontsultak porrot egin behar zuela ikusten zen eta Monterok aurrera begira Euskal Estatu Orokorren eraketa proposatu zuen, euskal herritarren artean ahalik eta autogobernu maila handiena adosteko.

Estatu orokor haiek Eusko Legebiltzarra dira oraingoan, eta balizko edukiari dagokionez, helburua litzateke akordio alde bikoak ahalik eta esparru gehienetara iristea. “Nire ustez –zioen Monterok– hori posible da guztian salbu eta Defentsa eta Estatuaren atzerriko ordezkarietan. Daukaguna baino gehiago da eta alde bakarreko erabaki eskubidea baino zerbait gutxiago”. Juanjo Alvarez EH Uko katedratikoak LARRUNEko 158

Oso posible da, soberanismoak eta herrigintzak aurrera egingo badute, hori makroakordio bidez baino mikroakordioekin egitea

zenbakian (2011ko urria) jaurtitakoak ere eman dezake helburuaren pistaren bat: “Kontzertu Ekonomikoaren ahalmena esparru politikora aldatuko bagenu, potentzialtasun ikaragarriak geneuzkake”. Ez da argitzen akordio eza nola desblokeatzen den, eta hala koetan atzean gizarte indar handia ez badago, ahulenak amore ematea da ohikoena.

EH BILDUK jakinarazi du lan batzordera Ibarretxe plana eta Loiolako Akordioak eramango dituela. Bere garaian Batasunak arbuatu egin zuen Ibarretxe plana, baina bere hiru botorekin, Eusko Legebiltzarrean berau aurrera ateratzea ahalbidetu zuen 2004an. Loiolako Akordioei dagokienez, ETak ez zuen onartu Batasunak itunari baiezkotzea ematea, nahiz eta honen ordezkariak –Rufi Etxeberria eta Arnaldo Otegi– berau hobetsi nahi zuten. Zazpi urte geroago EH Bilduk (Ibarretxe

plana defendatzen zuten EA eta Aralar ere hor dira) abiapuntu gisa jarriko dute autogobernuan aurrera egiteko.


Aldaketa handiak ez dira egituretakoak bakarrik ezker abertzalean. Urteetan autodeterminazio eskubidea eta lurraldetasuna gatazka armaturako oinarri izan badira, gaur egungo ezker abertzaleak onartzen du printzipio horiek soilik bide politikoen bidez lortu behar direla eta autodeterminazioa ez dela abagune honetako helbururik garrantzitsuenak. Hori adierazi zuen iragan irailean Euskal Bidea ekimenaren berri eman eta burujabetzaren bidea progresiboki gauzatzeko asmoa azalztzean: “Euskal Bidea gure

erabakien eskutik egin nahi dugu. Euskal Herrian erabaki nahi dugu. Ez gara etorkizuna erabakitze egun seinalatu baten zain geldituko, egunero gure erabakiak Euskal Herrian hartu nahi ditugularik”. Hau da, bake prozesuak eta eguneroko herrigintzak lehentasuna dutela eta independentziaren aldarrikapenak ez dituela horiek oztopatuko.

EH Bildu saiatuko da jeltzaleekin akordioaren bat bideratzen eta jeltzaleen artean ere badira joera horiek bultzatzearen aldekoak, baina eragozpenak ere ez dira makalak. Herrigintzaren oso klabe garrantzitsuak EAJk PS Eren finkatu ditu jada, bien artean gauzatu berri duten akordioan. Epe ertainera, beraz, oso posible da soberanismoak eta herrigintzak aurrera egingo badute, hori makroakordio bidez baino mikroakordioekin egitea. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat

Bilboko Kafe Antzokia



Bazkaria
bi lagunentzako

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1

Bilboko Euskal Museoa



3 lagunentzako
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2

Ekainberri

Ekain berri



3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3

Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa



3 lagunentzako
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4

Egutegia 2014



2 ale opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2393. Argia)

ARBELAITS JATETXEA

- Haizea Furones Garcia (Lasarte-Oria)

EKAINBERRI

- Jose Mari Ilardui Garitano (Bergara)
- Luis Mari Ralla Arruti (Donostia)
- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Mikel Lizarreta Jaka (Gartzain)
- Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)
- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)

HALA BEDI IRRATIA 30 urte CDa

- Iñaki Zipitria Urkizu (Lezo)
- Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)
- Eneko Gorri - Mairie De Biarritz Herriko Taberna (Biarritz)
- Arturo Kanpion Kultur Elkarte (Iruñea)

ARGIA EGUTEGIA 2014

- Victoria Txurruka Azpiazu (Ondarroa)
- Mamen Uharte Azpiroz (Leitza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





Aurtengo oparia



*harpidetza egizu
egiozu*

Orain

%50eko
beherapena

harpide berrientzat lehen urtean

hilean 6 € baino ez!

Eskaintza hau 2013ko abenduaren 31n amaitzen da

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpide@argia.com | www.argia.com/harpidetza

